Iradokizuna: Pantaila zuri dagoela, sakatu  behin, markatu dituzun zenbakien zerrendan sartzeko. Mugitu nahi duzun zenbaki edo izenera arte, eta sakatu  deitzeko.

- *Borrar listas de últimas llamadas* azken deien zerrenda ezabatzeko. Adierazi azken deien zerrendako telefono-zenbaki guztiak ezabatu nahi dituzun edo galdutako, jasotako edo bidalitako deien zerrendako zenbakiak bakarrik ezabatu nahi dituzun. Eragiketa hau ezin da desegin.

Deien, datuen eta mezuen kontagailuak eta tenporizadoreak



Oharra: zerbitzu-hornitzailearen deien eta zerbitzuengatik benetako faktura aldatu egin daiteke, sarearen ezaugarrien, fakturazioen biribiltzeen, zergen eta abarren ondorioz. Tenporizadore batzuk zeroan jar daitezke, zerbitzua edo softwarea eguneratzen ari den bitartean.

Sakatu **Menú**, hautatu *Registro llams.* eta, ondoren, *Duración de la llamada*, *Contador de datos de GPRS* edo *Temporizador de conexión de GPRS*, azken komunikazioei buruzko informazioa edukitzeko.

Kokapenaren informazioa


Sare batzuek posizionatze-eskaerak onartzen dituzte (sare-zerbitzua). *Posicionamiento* aukeran, zure sare-operadoretik jasotako posizionatze-eskaerak ikus ditzakezu. Harpidetzeko eta entregatzeko informazioa emateko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

Sakatu **Menú**, hautatu *Registro llams.*, *Posicionamiento* eta, ondoren, *Registro posición* jasotako posizionatze-eskaeren zerrenda ikusteko.

■ Aurkibidea

Izenak eta telefono-zenbakiak (kontaktuak) telefonoaren memorian eta SIM txartelaren memorian gorde daitezke.



- Telefonoaren memorian izenak eta haien zenbakiak eta testu-oharrak gorde ditzakezu. Halaber, irudi bat gorde daiteke izen-kopuru jakin baterako. Aurkibideak memoria partekatua erabiltzen du; ikus *Memoria partekatua* 15. orrialdean.
- SIM txartelaren memorian gordetako izenak eta zenbakiak  ikonoaren bidez adierazten dira.

Kontaktu dinamikoetan uneko prestasun-egoera argitara dezakezu zerbitzu honetarako sarbidea eta informazio hori eskatzen duten pertsonekin harremanetan jartzeko. Ikus *Norberaren presentzia* 84. orrialdean.

Aurkibidearen doikuntzak hautatzea

Sakatu *Menú*, aukeratu *Guía* eta *Ajustes*. Hautatu:

- *Memoria en uso*, kontaktuak gordetzeko SIM txartela edo telefonoaren memoria erabili nahi duzun hautatzeko. Aurkibiderako bi memorietako izenak eta zenbakiak erabiltzeko, hautatu *Teléfono y SIM*. Kasu horretan, izenak eta zenbakiak telefonoaren memorian gordetzen dira.
- *Vista de la guía*, aurkibideko izenak, zenbakiak eta irudiak zein eratarata bistaratuko diren aukeratzeko.
- *Estado de la memoria* aurkibiderako hautatutako memorian zenbat leku libre dagoen ikusteko.

Izenak eta telefono-zenbakiak gordetzea (kontaktua gehitzea)


Sakatu **Menú**, hautatu *Guía* eta *Añadir cont. nuevo*. Idatzi izena eta telefono-zenbakia. Izena eta zenbakia gorde eta gero, sakatu **Hecho**.



Iradokizuna: Bizko gordetzeko, pantaila zuri dagoela, sartu telefono-zenbakia eta sakatu **Guardar**. Idatzi izena, sakatu **Aceptar** eta **Hecho**.

Izen bati lotutako zenbakiak edo elementuak gordetzea

Hainbat telefono-zenbaki mota eta testu-elementu labur gorde daitezke telefonoaren barne-memorian.

Gordetako lehen zenbakia automatikoki definitzen da aurrez zehaztutako zenbaki gisa, eta zenbaki-motaren adierazlearen inguruan marko bat jarrita adierazten da, adibidez . Aurkibideko izen bat aukeratzen denean, adibidez dei bat egiteko, aurrez definitutako zenbakia erabiltzen da, baldin eta beste zenbaki bat aukeratzen ez bada.

1. Ziurtatu erabiltzen ari zaren memoria *Teléfono* edo *Teléfono y SIM* dela.
2. Joan zaitetz telefonoaren barne-memorian gordeta dagoen eta beste zenbaki bat edo testu-elementu bat erantsi nahi diozun izeneraino eta sakatu *Detalles*.
3. Sakatu *Opcs.* eta hautatu *Añadir número*, *Añadir detalle* edo *Añadir imagen*.
4. Zenbaki bat edo xehetasun bat eransteko, hautatu, hurrenez hurren, zenbaki- edo testu-mota, edo *galeriako* irudi bat.

ID de usuario testu-mota hautatzen baduzu: hautatu *Buscar*, ID bat telefono mugikorreko zenbakiaren edo operadore-zerbitzariaren edo uneko zerbitzura konektatu bazara zerbitzu-hornitzailearen helbide elektronikoaren bitartez bilatzeko. Ikus *Norberaren presentzia* 84. orrialdean. ID bakarra aurkitzen bada, automatikoki gordeko da. Kasu horretan, IDa gordetzeko, sakatu *Opcs.* eta hautatu *Guardar*. IDa sartzeko, hautatu *Introd. ID manual*. Sartu IDa eta sakatu *Aceptar* gordetzeko.

Zenbaki- edo testu-mota aldatzeko, aukeratu *Cambiar tipo* aukeren zerrendan. Kontuan izan ID baten mota ezin duzula aldatu *Contactos de MI* edo *Nombres suscritos* zerrendan bazaude.

Hautatutako zenbakia lehenetsi gisa definitzeko, hautatu *Fijar como predet.*

5. Sartu zenbakia edo testu-elementua eta sakatu *Aceptar* gordetzeko.
6. Sakatu *Atrás* eta, ondoren, *Salir* pantaila zurira itzultzeko.

Aurkibideko izen bati edo zenbaki bati irudi bat atxikitzea

Telefonoaren barne-memorian gordetako izen edo zenbaki bati irudi bat gehi diezaiokezu formatu bateragarri batean.

Mugitu joystick-a behera pantaila zuri dagoela, joan irudia erantsi nahi diozun kontakturaino eta sakatu *Detalles*. Sakatu *Opcs.* eta aukeratu *Añadir imagen*. Telefonoak *Galería* aukerako karpeten zerrenda irekitzen du. Joan nahi duzun irudiraino, sakatu *Opcs.* eta aukeratu *Guardar en la guía*. Kontaktuari irudiaren kopia bat erantsiko zaio.

Kontaktua bilatzea

Sakatu *Menú*, hautatu *Guía* eta *Buscar*; kontaktu baten izena bizkor bilatzeko, mugitu joystick-a behera pantaila zuri dagoela. Bilatu nahi duzun izenaren lehen karaktereak idatz ditzakezu irekita duzun leihoan. Gainera, *Guía* menuko aukera hauek egon daitezke erabilgarri:

Añadir cont. nuevo eta *Borrar*.

Copiar, izenak eta telefono-zenbakiak aurkibidetik SIM txarteleko memoriara, edo alderantziz, kopiatzeko.

Ajustes, aurkibideko izenak eta zenbakiak zein eratarata bistaratuko diren aukeratzeko. Hautatu *Estado de la memoria*, memoria erabilgarria eta guztira erabilia duzun memoria ikusteko.

Marcaación rápida, markaketa bizkorreko tekla bati zenbaki bat esleitzeko. Markaketa bizkorra aktibatzeko, ikus *Dei-doikuntzak*, 99. orrialdean.

- *Números servicio*, zerbitzu-hornitzailearen zerbitzu-zenbakietara deitzeko, SIM txartelean sartuta badaude (sare-zerbitzua).
- *Números propios*, SIM txartelari esleitutako telefono-zenbakiak ikusteko. Zenbaki horiek SIM txartelean sartuta badaude bakarrik bistaratzen da.
- *Grupos llamantes*, memorian gordetako izenak eta telefono-zenbakiak dei-tonu desberdina duten dei-taldetan antolatzeko.

Xehetasunak editatzea edo kentzea

Bilatu editatu edo ezabatu nahi duzun kontaktua eta sakatu **Detalles**. Joan editatu edo ezabatu nahi duzun izen, zenbaki, testu-elementu edo irudiraino eta sakatu **Opcs..**

- Izena, zenbakia edo testu-elementua editatzeko edo irudia aldatzeko, hautatu *Editar nombre*, *Editar número*, *Editar detalle* edo *Cambiar imagen*.

Kontuan izan ezin dela ID bat ezabatu *Contactos de MI* edo *Nombres suscritos* zerrendan badago.

- Zenbaki bat edo testu-elementu bat ezabatzeko, hautatu *Borrar número* edo *Borrar detalle*.
- Kontaktuari erantsitako irudi bat kentzeko, hautatu *Borrar imagen*. Aurkibidetik irudi bat kentzeak ez du esan nahi *Galería*-n ere ezabatu egiten denik.




Norberaren presentzia

Presentzia-zerbitzuarekin (sare-zerbitzua) zure presentzia-egoera beste erabiltzaile batzuekin parteka dezakezu: adibidez, zerbitzurako sarbidea duten eta gailu bateragarriak dituzten senideekin, lagunekin eta lankideekin. Presentzia-egoeran zure prestasuna, egoera-mezua eta logotipo pertsonala sartzen dira. Zerbitzurako sarbidea eta informazio hori eskatzen duten beste erabiltzaile batzuek zure egoera ikusi ahal izango dute. Eskatutako informazioa *Nombres suscritos* zerrendan agertzen da ikusten ari denaren *Aurkibidean*. Besteekin partekatu nahi duzun informazioa pertsonaliza dezakezu eta zure egoera norik ikus dezakeen kontrola dezakezu.

Presentzia erabili aurretik zerbitzura harpidetu beharko zara. Zerbitzuaren erabilgarritasuna egiaztatzeko, xehetasunak kargatzeko eta zerbitzura harpidetzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin. ID bat eta pasahitza emango dizkizu, bai eta zerbitzurako doikuntzak ere. Presentzia-zerbitzurako behar diren doikuntzak definitzeko, ikus *Berehalako mezuen doikuntzak* 68. orrialdean. Presentzia-zerbitzura konektatuta zaudela, telefonoaren gainerako funtzioak erabil ditzakezu; presentzia-zerbitzua aktibo egongo da bigarren planoan.

Sakatu Menú, aukeratu *Guía* eta *Mi presencia*. Hautatu:

- *Conec. con servicio "Mi presencia" (edo Desconectar)*.
- *Mi presencia actual* zure presentzia-egoera aldatzeko. Hautatu:
 - *Ver presencia actual* eta hautatu *Presencia priv.* edo *Presencia públ.*

- *Disponibilidad propia* zure prestasun-egoera definitzeko *Disponible* gisa,  bidez adierazten da, *Ocupado* gisa,  bidez adierazten da, edo *No disponible* gisa,  bidez adierazten da.
- *Mensaje de mi presencia* eta idatzi gainerakoentzat agertuko den testua edo sakatu *Ops.* eta hautatu *Mens. anteriores* eta mezu zahar bat egoera-mezu gisa.
- *Logo mi presencia* zure logotipo pertsonala hautatzeko galeriako *Gráficos* karpetan. *Predeterminada* hautatzen baduzu, logotipoa ez da argitara emango.
- *Mostrar* a zure presentzia-egoera zein talderi erakutsi nahi diozun edo ez diozun nahi erakutsi hautatzeko.

Hautatu *Privados / públicos* zure zerrenda pribatuko kontaktuek zure presentzia-informazio osoa ikus dezaten: prestasuna, egoera-mezua eta logotipoa. Gainerako kontaktuek zure prestasuna bakarrik ikus dezakete.

Hautatu *Videntes privados* zure zerrenda pribatuko kontaktuek zure presentzia-informazio osoa ikus dezaten (prestasuna, egoera-mezua eta logotipoa). Gainerako erabiltzaileek ez dute informaziorik ikusiko.

Nadie hautatzen baduzu, inork ezingo du zure presentzia-informazioa ikusi.

- *Videntes* eta hautatu
 - *Videns. actuales* zure presentzia-informaziora harpidetutako pertsona guztiak ikusteko.

- *Lista de privs.* zure presentzia-informazio guztia ikusteko baimena duten pertsonen zerrenda da, prestasuna, egoera-mezua eta logotipoa. Zure zerrenda pribatua zuk zeuk kudea dezakezu. Zerrenda pribatuan ez dauden pertsonenek zure prestasuna bakarrik ikus dezakete.
- *Lista de blogs.* zure presentzia-informazioa ikustea eragotzi diezun lagun guztiak ikusteko.
- *Ajustes* eta hautatu:
 - *Mostrar presencia actual en libre*, uneko egoeraren adierazlea erakusteko pantaila zuri dagoela.
 - *Sincronizar con modos de Mensaje de mi presencia* eta *Disponibilidad propia* eskuz edo automatikoki –une honetan aktibo dagoen moduarekin lotuz– eguneratu nahi dituzun hautatzeko. Ikus, halaber, *Moduak 94.* orrialdean. Kontuan izan ezin duzula egoera-logotipo pertsonalizatu bat modu batekin lotu.
 - *Tipo de conexión*, telefonoa piztean zerbitzura automatikoki konektatzea nahi duzun hautatzeko.
 - *Ajustes de MI y presencia*; ikus Berehalako mezuen doikuntzak, 68. orrialdean.

Harpidetutako izenak

Kontaktuen zerrenda bat sor dezakezu presentzia-egoerari buruzko informazioa jakin nahi duzun kontaktuekin. Informazioa ikus dezakezu kontaktuek uzten badizute eta kontaktuak edo sareak eragozten ez duenean. Harpidetutako izenak ikusteko aurkibidean mugitu edo joan *Nombres suscritos* menura.

Ziurtatu erabiltzen ari zaren memoria *Teléfono* edo *Teléfono y SIM* dela.





Presentzia-zerbitzura konektatzeko, sakatu **Menú** eta hautatu *Guía, Mi presencia* eta *Conec. con servicio "Mi presencia"*.

Kontaktuak gehitzea harpidetutako izenei

1. Sakatu **Menú**, aukeratu *Guía* eta *Nombres suscritos*. Presentzia-zerbitzura konektatu ez bazara, telefonoak orain konektatzea nahi duzun galdetuko dizu.
2. Zerrendan kontakturik ez baduzu, sakatu **Añadir**. Bestela, sakatu **Opcs.** eta hautatu *Suscribir nueva*. Kontaktuen zerrenda bistaratuko da.
3. Hautatu zerrendako kontaktu bat eta hark ID bat gordeta badu, harpidetutako izenen zerrendara gehituko da. ID bat baino gehiago badago, hautatu haietako bat. Kontaktua sartu ondoren, pantailan *Suscripción activada* mezua bistaratuko da.

Harpidetutako izenak bistaratzea

Ikus, halaber, **Kontakua bilatzea** 82. orrialdean presentzia-informazioa ikusteko.

1. Sakatu **Menú**, aukeratu *Guía* eta *Nombres suscritos*. Harpidetutako izenen zerrendako lehen kontaktuaren egoera-informazioa bistaratuko da. Beste lagunei erakutsi nahi diezun informazioan testua eta hauetako ikono batzuk egon daitezke:
 ,  edo  , pertsona prest dagoela, neurri batean prest dagoela edo ez dagoela prest adierazten dute.
 , pertsonaren presentzia-informazioa ez dagoela erabilgarri adierazten du.

2. Sakatu *Detalles* hautatutako kontaktuaren xehetasunak ikusteko, edo sakatu *Opciones* eta hautatu

- *Suscribir nueva*, harpidetutako izenen zerrendara kontaktu berri bat gehitzeko.
- *Chat*, elkarrizketa bat abiarazteko.
- *Enviar mensaje*, hautatutako kontaktuari testu-mezu bat bidaltzeko.
- *Enviar correo SMS*, hautatutako kontaktuari mezu elektronikoa bat bidaltzeko.
- *Enviar tarj. visita*, hautatutako kontaktuari bisita-txartel bat bidaltzeko.
- *Anular suscripción*, hautatutako kontaktua ezabatzeko harpidetutako izenen zerrendatik.

Kontaktu bati harpidetza bertan behera uztea

- *Aurkibideko* kontaktu bati harpidetza bertan behera uzteko, mugitu joystick-a behera pantaila zuri dagoela eta joan bertan behera utzi nahi duzun kontakturaino. Sakatu *Detalles* eta *Detalles* berriro, hautatu ID eta sakatu *Opc.*. Harpidetza bertan behera uzteko, hautatu *Anular suscripción* eta sakatu *Sí* berresteko.
- *Nombres suscritos* menuaren bidez harpidetza bertan behera uzteko, ikus Harpidetutako izenak bistaratzea 87. orrialdean.

Aurkibidea kopiazea

Telefonoaren memoriatik SIM txartelaren memoriara, eta alderantziz, kopia daitezke izenak eta telefono-zenbakiak. Kontuan izan telefonoaren barne-memorian gordetako testu-elementu batzuk, hala nola posta elektronikoko helbideak, ez direla SIM txartelean kopiazko.

Sakatu *Menú*, aukeratu *Guía* eta *Copiar*. Aukeratu nondik nora egin nahi duzun kopia, *Del teléfono a la tarjeta SIM* edo *De la tarjeta SIM al teléfono*. *Uno por uno* aukeratzen baduzu, joan kopiatu nahi duzun izeneraino eta sakatu *Copiar*.

Números predet. bistaraten da telefonotik SIM txartelera kopiatzen baduzu. Aurrez definitutako zenbakiak bakarrik kopiatuko dira. Jatorrizko izen eta zenbakiak jaso edo ezabatu nahi dituzun hautatzeko, aukeratu *Conservar original* edo *Mover original*.

Todas edo *Números predet.* hautatzen baduzu, sakatu *Sí* pantailan *¿Copiar contactos?* edo *¿Mover contactos?* mezua bistaratzen denean.

Bisita-txartelak bidaltzea eta hartzea

Pertsona baten harremanetarako informazioa gailu bateragarri baten bidez bidal eta jaso dezakezu; adibidez, bisita-txartel baten bidez. Bisita-txartel bat (MMS) jasotakoan, sakatu *Mostrar (Reprod.)* eta *Guardar* bisita-txartela telefonoaren memorian gordetzeko. Bisita-txartela gorde nahi ez baduzu, sakatu *Salir* eta *Sí*.

Bisita-txartel bat bidaltzeko, bilatu aurkibidean bidali nahi diozun izena eta helbidea, sakatu **Detalles**, **Opcs.** eta aukeratu *Enviar tarj. visita*. Hautatu *Vía infrarrojos*, *Vía Bluetooth*, *Vía mensaje texto* (sare-zerbitzua) edo *Vía multimedia* (sare-zerbitzua).

Markaketa bizkorra

Markaketa bizkorreko tekla bati zenbaki bat esleitzeko, sakatu **Menú**, aukeratu *Guía* eta *Marcación rápida*, eta joan nahi duzun markaketa bizkorreko tekla-zenbakiraino. Sakatu **Asignar** edo, zenbakia tekla bati esleitu bazaio, sakatu **Opcs.** eta hautatu *Cambiar*. Sakatu **Buscar** eta aukeratu lehenik izena eta, ondoren, esleitu nahi duzun zenbakia. *Marcación rápida* funtzioa desaktibatuta baldin badago, telefonoak aktibatu nahi duzun galdetuko dizu. Ikus, halaber, *Marcación rápida* Dei-doikuntzak atalean, 99. orrialdean.

Markaketa bizkorreko teklak erabilia dei bat egiteko, ikus *Telefono-zenbakia bizkor markatzea*, 34. orrialdean.

Ahots bidezko markaketa

Telefono-zenbaki bati loturiko grabazio bat ahoskatuta, telefono-dei bat egiteko aukera dago. Edozein hitz, adibidez, pertsona baten izena, gehi daiteke grabazio gisa. Gehienez hamar grabaketa gehi ditzakezu.

Ahots-identifikatzaileak erabili aurretik, hauxe izan behar da kontuan:

- Ahots-identifikatzaileek ez dute hizkuntzarekin zerikusirik. Aitzitik hitz egiten duen pertsonaren ahotsa bereizten du.
- Izena grabatu zenuenean bezala ahoskatu behar duzu.
- Inguruko soinuak eragina izan dezake ahots-identifikatzaileetan. Grabatzeko eta erabiltzeko, aukeratu leku isilak.
- Ez dira oso izen laburrak onartzen. Erabili izen luzeak eta saiatu zenbaki ezberdinetarako antzeko izenak ez erabiltzen.




Oharra: Ahots-identifikatzaileak erabiltzea zaila suerta daiteke inguru zaratatsuetan edo larrialdiko egoera batean. Horregatik, ez fidatu ahots bidezko markaketaz bakarrik kasu guztietarako.

Grabazioak entzutea eta kudeatzea

Gorde edo kopiatu telefonoaren memorian grabazio bat gehitu nahi diezun kontaktuak. Halaber, SIM txartelean gordetako izenei grabazioak gehi dakizkieke, baina txartel berri batez ordeztzen baduzu, grabazio zahar guztiak ezabatu beharko dituzu berriak gehitzeko.

Ahots-grabazioek memoria partekatua erabiltzen dute, ikus [Memoria partekatua 15. orrialdean](#).

1. Pantaila zuri dagoela, mugitu joystick-a beherantz.
2. Joan grabaketa bat gehitu nahi diozun kontakturaino eta sakatu **Detalles**. Joan zeuk nahi duzun telefono-zenbakiraino eta sakatu **Opc.**.
3. Hautatu *Añadir grabación*.

4. Sakatu **Iniciar** eta esan ezazu argi eta garbi grabatu nahi duzun hitza, edo hitzak. Behin prozesua egin eta gero, telefonoak grabazioa erreproduzitzen du. Telefono-zenbaki bati grabazioa esleitzen zaionean,  ikurra bistaratzen da.

Grabazioak egiaztatzeko, sakatu **Menú**, hautatu *Guía* eta *Grabaciones*. Joan nahi duzun grabazioa duen kontakturaino, eta sakatu *Selecc.* grabazioa entzuteko, ezabatzeko edo aldatzeko.

Dei bat grabazio bidez egitea

Pantaila zuri dagoela, luze sakatu eskuineko aukeraketa-tekla. Tonu labur bat entzungo da eta testu hau agertuko da: *Por favor, hable ahora*. Esan ezazu grabazioa argi eta garbi. Telefonoak ezagutu duen grabazioa erreproduzitzen du eta, 1,5 segundo igaro eta gero, hari loturiko zenbakia markatzen du.

Zerbitzu-zenbakiak

Baliteke zure zerbitzu-hornitzaileak zerbitzu-zenbakiak sartu izana zure SIM txartelean. Menu hauek SIM txartelak onartzen baditu bakarrik egongo dira erabilgarri.

Norberaren zenbakiak

SIM txartelari dagozkion telefono-zenbaki guztiak *Números propios* aukeran sartzen dira, txartelak hori onartzen badu. Zenbakiak ikusteko, sakatu **Menú**, aukeratu *Guía* eta *Números propios*. Joan zaitetz nahi duzun izen edo zenbakiraino eta sakatu **Ver**.

Dei-egileen taldeak

Aurkibidean gordetako izenak eta zenbakiak dei-egileen taldeen arabera antola daitezke. Dei-egileen talde bateko telefono-zenbaki batetik dei bat jasotzean dei-seinale espezifiko bat jotzeko eta pantailan grafiko jakin bat agertzeko moduan konfiguratu daitezke telefonoa. Telefonoa bereziki konfiguratzeko dei-egileen talde jakin bateko deiak jasotzean bakarrik jotzeko moduan, ikus *Aviso para Tonuen* doikuntzak atalean, 95. orrialdean.

Sakatu **Menú**, aukeratu *Guía*, *Grupos Ilamantes* eta hautatu nahi dugun dei-egileen taldea. Hautatu:

- *Nombre de grupo*, sartu dei-egile taldearen izen berria eta sakatu **Aceptar**.
- *Señal de llamada de grupo*, eta aukeratu seinalea taldearen deientzat.
- *Logotipo de grupo*, eta aukeratu *Activar* telefonoa taldearen logotipoa bistaratzeko moduan konfiguratzeko, *Desactivar*, ez bistaratzeko, edo, bestela, *Ver*, logotipoa ikusteko.
- *Miembros del grupo*, dei-egileen taldeari izen bat gehitzeko; sakatu **Añadir**. Joan taldeari gehitu nahi diozun izeneraino eta sakatu **Añadir**. Dei-egileen talde bateko izen bat ezabatzeko, joan ezabatu nahi duzun izen horretaraino, sakatu **Opc.** eta aukeratu *Eliminar contacto*.

■ Doikuntzak




Audio-profilak

Telefonoak hainbat aukera- edo modu-talde ditu, eta telefono-tonuak talde horien arabera pertsonaliza daitezke, egoeraren eta inguruaren arabera. Pertsonalizatu modu guztiak zure gustura eta aktibatu erabili nahi duzun modua. Eskura dituzun moduak hauek dira: *Normal*, *Silencio*, *Reunión*, *Muy alto*, *Estilo propio 1* eta *Estilo propio 2*.

Sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes* eta *Modos*. Joan modu bateraino eta sakatu *Selecc.*

- Hautatutako modua aktibatzeke, aukeratu *Activar*.
- Modua pertsonalizatzeko, aukeratu *Personalizar*. Hautatu aldatu nahi duzun doikuntza eta egin aldaketak.
- Modua aktibo egon dadin gehienez 24 orduz, hautatu *Temporizar* eta ezarri egindako doikuntza bukatzeko denbora. Modu horretarako finkatutako denbora amaitzen denean, berriro aktibatu egingo da inolako denbora-mugarik ez zuen aurreko modua.



Iradokizuna: Modua pantaila zuri dagoela bizkor aldatzeko, sakatu pizteko tekla  , zoaz aktibatu nahi duzun moduraino eta sakatu *Selecc.*

Gaiak

Gaia pakete bat da, pantaila-babesa, horma-irudi bat, dei-seinale bat eta kolore-eskema bat dituena, telefonoa gertaera eta inguru desberdinekin pertsonalizatzeko. Gaiak *Galerian* gordetzen dira.

Sakatu Menú, aukeratu *Ajustes* eta *Temas*. Gai bat aktibatzeko, hautatu *Seleccionar temas, galeriako Temas* karpeta ikusteko. Ireki karpeta eta joan gairaino. Sakatu *Opcs.* eta hautatu *Aplicar tema*. Ikus, halaber, *Galeria*, 111. orrialdean. Gai berriak deskargatzeko, hautatu *Descarga temas*. Ikus *Deskarga* 145. orrialdean.

Tonuen doikuntzak

Hautatutako modu aktiboko doikuntzak alda ditzakezu.

Sakatu Menú, aukeratu *Ajustes* eta, ondoren, *Ajustes de tonos*. Hautatu eta aldatu *Aviso de llamada entrante, Señal de llamada, Volumen de señal de llamada, Aviso por vibración, Tono de aviso para mensajes, Tono de aviso de Mensajes instant., Sonido del teclado* eta *Tonos de aviso*. Doikuntza horiek *Moduen* menuan ere badaude; Ikus *Moduak* 94. orrialdean.

Aukeratu *Aviso para*, hautatutako dei-egileen multzo bateko telefono-zenbakietatik deiak jasotzen direnean bakarrik jo dezan telefonoak. Joan zaitetz hautatu nahi duzun dei-egileen multzoraino edo hautatu *Todas llamadas* eta sakatu *Selecc.*

Zuzeneko sarbide pertsonalak

Zuzeneko sarbide pertsonalen bidez gehien erabiltzen diren telefonoaren funtziotara bizkor sar zaitezke.

Eskuineko aukera-tekla

Sakatu *Menú* eta aukeratu *Ajustes*, *Accesos directos personales* eta *Tecla de selección derecha* aurrez zehaztutako zerrenda batetik funtzioa esleitzeko eskuineko aukeraketa-tekleri. Ikus, halaber, *Pantaila zuria 29*. orrialdean. Menu hau ez da bistaritzen, operadorearen aldaera batzuetan.


"Ir a"-ren aukerak

Aurrez definitutako zerrenda bateko telefono-funtzio bat esleii diezaiokezu ezkerreko aukera-tekleri.

Sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes* eta, ondoren, *Accesos directos personales*. Hautatu *Seleccionar opciones de "Ir a"*, zuzeneko sarbideen zerrendan azaltzea nahi dituzun funtzioak hautatzeko. Hautatu *Organizar opciones de "Ir a"* zuzeneko sarbide pertsonalen zerrendako funtzioak berrantolatzeko. Ikus, halaber, *Pantaila zuria 29*. orrialdean.

Ahots-komandoak

Grabazio bat esanez aktiba daitezkeen telefono-funtzio batzuk eduki daitezke. Grabazio bakoitzean, bost funtzio hauta daitezke.

Sakatu *Menú* eta hautatu *Ajustes*, *Accesos directos personales* eta *Comandos de voz*. Hautatu nahi duzun funtzioen karpeta, joan grabazioa jarri nahi diozun funtzioraino eta sakatu *Añadir*. Grabazioa  ikonoaren bidez adierazten da.

Ahots-komando bat gehitzeko, ikus Grabazioak entzutea eta kudeatzea ataleko jarraibideen zatia, 91. orrialdean.

Ahots-komando bat aktibatzeko, ikus Dei bat grabazio bidez egitea ataleko jarraibideen zatia, 92. orrialdean.

Ahots-komandoen bidez aktiba daitekeen funtzioetako bat *Avisos acústicos* dira, seinale akustikoen bidez bateriaren egoera egiaztatzeko:

bip bat > baxua

bi bip > nahiko baxua

hiru bip > nahiko altua

lau bip > altua

tonu desberdina > ez da sare-estaldurarik

Pantailaren doikuntzak

Sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes* eta *Ajustes de la pantalla*.

- Hautatu *Papel tapiz*, telefonoak pantaila zuria duenean bigarren planoan irudi bat, "horma-papera" ere deitzen dena, bistara dezan konfiguratzeko telefonoa.
- Hautatu *Esquemas de color*, pantailako osagai batzuen eta menuaren funtzio bat erabiltzean azaltzen den hondoko irudiaren kolorea aldatzeko.

- Hautatu *Vista de los menús* telefonoaren menua nagusia bistartzeko modua definitzeko.
- Hautatu *Logotipo del operador* operadorearen logotipoa erakuts edo ezkuta dezan konfiguratzeko telefonoa.
- Hautatu *Salvapantallas* eta *Selección salvap.* animazio bat edo irudi finko bat *galeriako* pantaila-babes gisa aukeratzeko. Hautatu, *Tiempo de espera* aukeran, pantaila-babesa aktibatzeko igaro behar den denbora. Aukeratu *Activar* pantaila-babesa aktibatzeko.

Pantaila-babesaren konfigurazioa kontuan hartu gabe eta energia aurrezteko, erloju digital baten ikuspegia aktibatuko da telefonoaren funtziorik erabili ez denean denbora-tarte jakin batean. Ikus *Energía aurrezte*a, 30. orrialdean.

Dataren eta orduaren doikuntzak

Sakatu *Menú*, hautatu *Ajustes* eta *Ajustes de hora y fecha*.







Aukeratu *Reloj*, erlojua pantaila zuriarekin bistartzeko moduan konfiguratzeko telefonoa, doi dezan eta ordu-eremua eta orduaren formatua hauta ditzan.

Hautatu *Fecha*, pantaila zuriarekin erlojua data bistartzeko, formatua aukeratzeko eta dataren bereiz-ikurrak ezartzeko moduan konfiguratzeko telefonoa.

Hautatu *Actualización auto de fecha y hora* (sare-zerbitzua) data eta ordua automatikoki egunera daitezen (uneko ordu-eremuaren arabera) konfiguratzeko telefonoa.

Dei-doikuntzak

Sakatu Menú, aukeratu *Ajustes* eta, ondoren, *Ajustes de llamada*. Hautatu:

- *Control auto de volumen*, eta telefonoak bozgorailuaren bolumena automatikoki doituko du atzeko soinuaren arabera.
- *Desvío de llamadas* (sare-zerbitzua), sarrerako deiak desbideratzeko. Horri buruzko informazio gehiago lortzeko, galdetu zure zerbitzu-hornitzaileari.
- *Cualquier tecla responde* eta *Activar* aukeratzen baduzu, sarrerako dei bati erantzun ahal izango diozu edozein tekla une labur batez sakatuta; hauek sakatuta izan ezik: ,  eta  aukeraketa-teklak, PTT eta  tekla.
- *Rellamada automática* eta *Activar*, eta telefonoak hartu gabeko dei-saiakera baten ondoren, hamar saiakera egingo ditu gehienez berriro konektatzeko.
- *Marcación rápida* eta *Activar* aukeratu baduzu, markaketa bizkorreko teklei ( tik  ra) esleitutako telefono-zenbakiak eta izenak dagozkien zenbaki-teklak luze sakatuta marka daitezke.
- *Llamada en espera* eta *Activar*, eta hitz egiten ari zaren bitartean beste deirik dagoen ohartaraziko dizu sareak (sare-zerbitzua). Ikus Deia zain, 34. orrialdean.
- *Resumen tras la llamada* eta *Activar* hautatu baduzu, dei baten ondoren azken deiaren gutxi gorabeherako iraupena eta kostua bistaratuko dizkizu labur telefonoak (sare-zerbitzua).
- *Envío de identidad del llamante* (sare-zerbitzua) eta hautatu *Sí* edo *Fijado por la red*.

- *Línea para llamadas salientes* (sare-zerbitzua), deiak egiteko 1. edo 2. linea aukeratzeko. SIM txartelak onartzen badu bakarrik bistaratuko da aukera hau.

Telefonoaren doikuntzak

Sakatu *Menú* eta hautatu *Ajustes* eta *Ajustes del teléfono*. Hautatu:

- *Idioma del teléfono*, telefonoaren pantailako hizkuntza definitzeko. *Automático* aukeratzten baduzu, telefonoak SIM txartelean dagoen informazioaren arabera aukeratu du hizkuntza.
- *Estado de la memoria*, memoria bakoitzean zenbat memoria dagoen libre egiaztatzeko.
- Hautatu *Bloqueo auto del teclado* aurrez zehaztutako denbora-tartea igarotakoan telefonoaren teklatura automatikoki blokeatzeko konfiguratu dezakezu, telefonoaren pantaila zuri dagoela eta funtziorik erabili ez denean. Hautatu *Activar* eta 5 eta 60 minutuko denbora-tartea defini dezakezu.

Segurtasun-teklatura aktibatuta dagoenean, larrialdi-zenbaki ofizialera dei daiteke.

- *Presentación de info de célula* eta *Activar*, sare-operadoreari buruzko informazioa jasotzeko, erabilitako sare zelularren arabera (sare-zerbitzua).
- Hautatu *Saludo inicial* eta idatzi telefonoa piztean pantailan agertzea nahi duzun oharra. Oharra gordetzeko, sakatu *Guardar*.
- *Selección de operador* eta *Automática*, eta telefonoak automatikoki aukeratzten du inguru horretan erabilgarri dauden sare zelularretako bat. Aukeratu *Manual*, tokiko sare-operadorearekin desplazamendu-akordio bat duen sareetako bat aukeratzeko.

- *Confirmar acciones de servicio de SIM.* Ikus SIM zerbitzuak 151. orrialdean.
- *Activación de texto de ayuda,* telefonoa laguntza-testua erakusteko edo ez erakusteko konfiguratzeko.
- *Tono inicial,* piztean hasierako tonua emititzeko edo ez emititzeko konfiguratzeko telefonoa.

Konektagarritasuna

Telefonoa gailu bateragarri batera konekta dezakezu infragorrien edo Bluetooth haririk gabeko konexioen bidez. (E)GPRS markaketa-konexioen doikuntzak ere defini ditzakezu.

Bluetooth haririk gabeko teknologia

Gailu hau Bluetooth 1.2 zehaztapenarekin batera daiteke, eta profil hauek onartzen ditu: Hands-free, headset profile, object push profile, file transfer profile, dial-up networking profile, SIM access profile, service discovery profile, Generic Access Profile, serial port profile eta Generic Object Exchange Profile. Bluetooth teknologia onartzen duten beste gailu batzuekin erabil daitekeela bermatzeko, erabili modelo honetarako Nokiak onartutako ekipoak bakarrik. Egiaztatu fabrikatzaileekin ekipo honekin zein gailu erabil daitekeen.


Baliteke Bluetooth teknologia erabiltzean mugak izatea hainbat herritan. Galdetu tokiko administrazioari edo zerbitzu-hornitzaileari.

Bluetooth teknologia erabiltzen duten funtzioak, edo beste funtzio batzuk erabiltzen diren bitartean bigarren mailan teknologia horiek aktibatzen direnean, bateria gehiago behar izaten da eta bateriak gutxiago iraungo du.

Bluetooth teknologiaren bidez, gehienez 10 metrora dagoen Bluetooth gailu bateragarri batekin konekta dezakezu telefonoa. Bluetooth teknologia erabiltzen duten gailuak irrati-uhinen bidez komunikatzen direnez, telefonoak eta gailuek ez dute zertan zuzeneko ikuspen-lerro berean izan; hala ere, interferentziak izan daitezke konexioan hormak edo bestelako gailu elektronikoez eraginda.

Bluetooth konexio bat konfiguratzea

Sakatu *Menú* eta hautatu *Ajustes*, *Conectividad* eta *Bluetooth*. Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- *Bluetooth* > *Activar* edo *Desactivar*, Bluetooth funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko.  ikurrak adierazten du Bluetooth konexio bat aktibatuta dagoela.
- *Buscar accesorios de audio*, audioko gailu bateragarriak bilatzeko. Hautatu telefonoan konektatu nahi duzun gailua.

Dispositivos vinculados, ekintza-erradioan Bluetooth gailu bateragarriak bilatzeko. Hautatu *Nuevo*, ekintza-erradioan dauden Bluetooth gailuen zerrenda lortzeko. Joan gailu batera eta hautatu *Vincular*. Sartu Bluetooth gailuaren sarbide-kodea, gailua telefonoarekin lotzeko. Gailura lehen aldiz konektatzean bakarrik sartu beharko duzu pasahitz hori. Telefonoa gailura konektatuko da, eta datu-transferentzia hasi ahal izango da.

Bluetooth haririk gabeko konexioa

Sakatu **Menú** eta hautatu *Ajustes, Conectividad* eta *Bluetooth*. Une horretan aktibatuta zein Bluetooth konexio dagoen egiaztatzeko, hautatu *Dispositivo activo*. Une horretan telefonoarekin lotuta dauden Bluetooth gailuen zerrenda ikusteko, hautatu *Dispositivos vinculados*.

Hautatu **Opcs.** funtzio hauetako batera joateko gailuaren eta Bluetooth konexioaren egoeraren arabera. Hautatu *Asignar alias* edo *Conexión auto sin confirmación* > *Si* telefonoa lotutako Bluetooth gailu batekin automatikoki konektatzeko moduan konfiguratzeko.

Bluetooth-en doikuntzak

Beste Bluetooth gailuetan telefonoa nola bistaratu definitzeko, sakatu **Menú** eta hautatu *Ajustes, Conectividad, Bluetooth, Ajustes de Bluetooth* eta *Visibilidad de mi teléfono* edo *Nombre de mi teléfono*.

Doikuntza hau egitea komeni da: *Visibilidad de mi teléfono* > *Oculto*. Ezagutzen dituzun gailuen Bluetooth komunikazioak bakarrik onartu.

Infragorriak

Telefonoa infragorrien ataken bidez datuak jasotzeko moduan konfigura daitezke. Infragorri bidezko konexio bat erabiltzeko, konektatu nahi dugun gailuak IrDa-rekin bateragarria izan behar du. Datuak (adibidez, bisita-txartelak, grafikoak, irudiak, soinu-klipak, bideoak eta agendako oharrak) bidali eta jaso daitezke telefono edo datu-gailu bateragarri batera edo haietatik (esate baterako ordenagailu batera edo batetik), zure telefonoaren infragorrien atakaren bidez.

Ez zuzendu izpi infragorriak pertsona baten begietara zuzenean, eta ez utzi infragorriak erabiltzen dituen beste gailu batzuekin interferentziarik sortzen. Gailu hau 1 klaseko laser produktua da.

Datuak infragorrien bidez bidaltzea eta jasotzea

1. Ziurtatu bidaltzeko eta jasotzeko gailuen infragorrien atakak bata bestearen parean daudela, eta ez dagoela gailuen arteko oztopo fisikorik.
2. Telefonoaren infragorri-ataka datuak jasotzeko aktibatzeko, sakatu **Menú** eta hautatu *Ajustes*, *Conectividad* eta *Infrarrojos*.
3. Telefono bidaltzaileko erabiltzaileak datuak transferitzen hasteko, hark nahi duen infragorrien funtzioa hautatuko du.

Datu-transferentzia IR portua aktibatu eta handik bi minutura hasi ez bada, konexioa bertan behera geratzen da eta berriz hasi behar da.

Infragorrien bidezko konexioaren adierazlea

- Pantailan **▶** etengabe agertzen denean, infragorrien bidezko konexioa aktibatutik dagoela esan nahi du eta zure telefonoa prest dagoela IR atakaren bidez datuak bidali edo jasotzeko.
- **▶** adierazlea keinuka hasteak esan nahi du telefonoa beste gailuarekin konektatu nahian ari dela, edo konexioa galdu egin dela.

(E)GPRS

GPRS teknologia (General Packet Radio Service) sare-zerbitzu bat da, eta, horri esker, telefono mugikorra erabil daiteke Internet Protokoloan (IP) oinarritutako sare baten bidez datuak bidaltzeko eta jasotzeko. GPRS teknologia datu-garraiatzaile bat da, eta Internetera eta hori bezalako datu-sareetara haririk gabe sartzeko aukera ematen du.

EGPRS (Enhanced GPRS), EDGE (Enhanced Data Rates for Global Evolution) izenez ere ezaguna, GPRSren antzekoa da. EDGE irrati-interfazearen modulazio-teknika da, GPRS datuen abiadura bizkortzen duena. EGPRSren erabilgarritasunari eta datuak transferitzeko abiadurari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.

(E)GPRS aplikazio hauek erabil dezakete: MMS, berehalako mezuek, nabigazio-saioak, posta elektronikoa, urruneko SyncML, Java aplikazioak deskargatzea eta PCTik markatzea (adibidez, Internet eta posta elektronikoaren bidez).

(E) GPRS teknologia erabili aurretik, galdetu zure sare- edo zerbitzu-hornitzaileari zerbitzu honen erabilgarritasunari eta harpidetzari buruz, eta gorde (E) GPRSren doikuntzak behar duten aplikazioetarako. Horien prezioei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

Kontuan izan GPRS datu-garraiatazailerik gisa hautatu baduzu, telefonoak EGPRS erabiliko duela GPRSren ordez sarean erabilgarri badago. EGPRS eta GPRSren artean ezin duzu aukeratu, baina aplikazio batzuetan GPRS edo *GSM datuak* hauta dezakezu (CSD, Circuit Switched Data).

(E)GPRS konexioa

Sakatu Menú eta hautatu *Ajustes, Conectividad, GPRS eta Conexión GPRS*.

- Hautatu *Siempre en línea* telefonoa piztean automatikoki (E)GPRS sare batean erregistra dadin telefonoa konfiguratzeko.
- Hautatu *Cuando necesario* eta erregistra eta (E)GPRS konexioa ezarriko dira (E)GPRS erabiltzen duen aplikazioak hala behar duenean; aplikazioa itxitakoan, bai erregistra eta bai konexioa itxi egingo dira.

(E)GPRSren modemaren doikuntzak

Bluetooth haririk gabeko teknologiaren bidez, infragorrien bidezko edo datu-kable baten bidezko konexioarekin PC bateragarri batera konekta daiteke telefonoa, eta telefonoa modem gisa erabil daiteke PCTik (E)GPRS konektagarritasuna ahalbidetzeko.

(E)GPRS konexioetarako doikuntzak definitzeko PCTik, sakatu *Menú*, hautatu *Ajustes*, *Conectividad*, *GPRS* eta *Ajustes del módem de GPRS*.

- Aukeratu *Punto de acceso activo* eta aktibatu erabili nahi duzun sarbide-puntua.
- Aukeratu *Editar punto de acceso activo* sarbide-puntuaren doikuntzak aldatzeko.
 - Aukeratu *Alias de punto de acceso*. Sartu aktibaturiko sarbide-puntuari eman nahi diozun izena eta sakatu *Aceptar*.
 - Aukeratu *Punto de acceso de GPRS*. (E)GPRS sarearekin konektatzeko, sartu sarbide-puntuaren izena (Access Point Name, APN) eta sakatu *Aceptar*. APN lortzeko, jarri harremanetan sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

PCan (E)GPRS markaketa-zerbitzuaren doikuntzak ere defini ditzakezu (sarbide-puntuaren ezizena), Nokia Modem Options softwarearen bidez. Horrekin lotuta, ikus PC Suite 152. orrialdean. PCan eta telefonoan doikuntzak definitu badituzu, kontuan izan PCan definitutakoak erabiliko direla.

Osagarrien doikuntzak

Osagarrien doikuntzen menua telefonoa osagarri mugikor bateragarri batera konektatuta dagoenean edo egon denean (adibidez, kargagailuak edo esku libreko unitateak) bakarrik agertzen da.

Sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes* eta, ondoren, *Ajustes de accesorios*. Osagarri baten menua hauta dezakezu baldin eta osagarri hori telefonora konektatuta badago edo egon bada. Osagarriaren arabera, aukera hauetako bat hauta dezakezu:

- *Modo predeterminado*, aukeratutako osagarria konektatzean automatikoki zein modu aktibatzea nahi duzun hautatzeko. Osagarria konektatuta dagoen bitartean, beste modu bat aukera dezakezu.
- *Respuesta automática*, sartzen diren deiei bost segundoan automatikoki erantzuteko definitzeko telefonoa. *Aviso de llamada entrante* aukera *Sólo un "bip"* edo *Desactivado* gisa definituta badago, automatikoki erantzuteko aukera ez da aktibatuko.
- Hautatu *Iluminación*, argia denbora guztian piztuta egon dadin (*Activar*). Aukeratu *Automática*, tekla bat sakatu ondoren argia 15 segundoz piztuta edukitzeko.

- Telefonoa autoko kit profesionalera konektatuta dagoenean, hautatu *Detector de encendido* eta *Activar*, autoa itzali ondorengo 20 segundoetan gutxi gorabehera telefonoa automatikoki itzaltzeko.

Konfigurazio–doikuntzak

Sare-zerbitzu batzuek eskatzen dute konfigurazioaren doikuntza egokiak telefonoan edukitzea. Eskatu zure SIM txarteleko doikuntzak zerbitzu-hornitzaile bati, konfigurazio-mezu gisa, edo sartu eskuz zure doikuntza pertsonalak. Telefonoan hamar zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio–doikuntzak sar daitezke, eta menuaren bidez kudeatu.

Zerbitzu–hornitzaile bate bidalitako konfigurazio–mezuan dauden konfigurazio–doikuntzak doitzeko, ikus *Konfigurazioa* doitzeko zerbitzua, 19. orrialdean.

Sakatu *Menú* eta hautatu *Ajustes* eta *Ajustes de configuración*. Hautatu:

- *Ajustes config. predeterminados* telefonoan gordetako zerbitzu–hornitzaileen zerrenda ikusteko (lehenetsitako zerbitzua nabarmenduta bistaratzen da) eta beste zerbitzu–hornitzaile bat lehenesteko. Mugi zaitetz hornitzailearaino eta sakatu *Detalles* onartzen dituen aplikazioen zerrenda ikusteko. Zerrendatik zerbitzu–hornitzaile bat ezabatzeke, sakatu *Opc.* eta hautatu *Borrar*.
- *Activar valor pred. en todas aplicacs.* lehenetsitako zerbitzu–hornitzailearen doikuntzak zein aplikazioekin erabili behar dituen definitzeko.

- *Punto de acceso preferido*, beste sarbide-puntu bat hautatzeko. Normalean, sare-operadore gustukoaren sarbide-puntua erabiliko du.

Doikuntzak eskuz sartzea

Doikuntzetara eskuz sartzeko, ikusteko eta editatzeko, sakatu *Menú*, hautatu *Ajustes*, *Ajustes de configuración* eta *Ajustes de configuración personal*.

Konfigurazio berria eransteko, sakatu *Añadir* edo *Opcs.* eta hautatu *Añadir nuevo*. Hautatu zerrendako aplikazio-mota bat eta sartu behar diren doikuntzak. Doikuntzak aktibatzeke, sakatu *Atrás* eta *Opcs.* eta aukeratu *Activar*.

Erabiltzaileak definitutako doikuntzak ikusteko edo editatzeko, hautatu ikusi nahi duzun aplikazioa eta, ondoren, editatu nahi duzun doikuntza.

Segurtasun–doikuntzak

Deiak murriztuta daudenean, deitu daiteke telefonoan programatutako larrialdi-zenbaki ofizialera.

Sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes* eta, ondoren, *Ajustes de seguridad*. Hautatu:

- *Petición del código PIN*, telefonoak, piztean, PIN kodea eska dezan. SIM txartel batzuek ez dute aukerarik ematen PIN kodea eskatzeko aukera desaktibatzeke.
- *Servicio de restricción de llamadas* (sare-zerbitzua), telefonoan sartzen eta telefonotik ateratzen diren dei batzuk murrizteko. Ezinbestekoa da murrizketa-pasahitza.
- *Marcación fija*, telefono-zenbaki jakinetara egindako deiak murrizteko, baldin eta SIM txartelak funtzio hori badu.

- *Grupo cerrado de usuarios*: sare-zerbitzu hau zuri deitzeko edo zuk deiak egiteko aukera duten pertsona-taldea zehazteko da.
- *Nivel de seguridad*. Aukeratu *Teléfono*, telefonoan SIM txartel berri bat sartzen duzun bakoitzean telefonoak segurtasun-kodea eskatzeko. Hautatu Memoria eta telefonoak segurtasun-kodea eskatuko dizu, SIM txartelean memoria hautatzen duzunean eta erabiltzen ari zaren memoria aldatu nahi duzunean.
- *Códigos de acceso* segurtasun-kodea, PINa, PIN2a edo murrizketa-pasahitza aldatzeko.
- *Código en uso*, UPIN edo PIN kodeak aktibatuta egon behar duten zehazteko.

Hasierako balioak leheneratzea

Menuko aukeren hasierako balioak berriz ezartzeko, sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes* eta *Restaurar los valores iniciales*.

■ Operador menua

Menu honekin, sare-operadoreak emandako zerbitzu-atari batera (operadore horrena bakarrik dena) sar zaitezke. Izena eta ikonoa operadorearen arabera aldatzen dira. Informazio gehiago eskuratzeko, jar zaitez harremanetan zure sare-operadorearekin.

Operadoreak menu hori egunera dezake, zerbitzu-mezu bat bidalita. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Zerbitzuko sarrerako postontzia 145. orrialdean.

■ Galeria



Menu honetan, grafikoak, irudiak, bideoklipak, grabazioak eta tonuak kudea ditzakezu. Fitxategi horiek karpetaan daude.

Telefonoak DRM sistema (Digital Rights Management) onartzen du eskuratutako edukia babesteko. Edukia –dei-seinalearen kasuan bezala – babes daiteke eta erabilera-arau batzuetara lot daiteke; adibidez, erabilera-kopurua eta erabiltzeko aldi jakina. Arauak edukia aktibatzeko kodean definitzen dira, eta edukiarekin edo bakarrik eman daitezke, zerbitzu-hornitzailearen arabera. Aktibatze-kode horiek egunera daitezke. Egiaztatu beti eduki guztien entrega-baldintzak eta aktibatze-kodea erosi aurretik, tarifaren bat eduki baitezakete.

Copyright-en babesak direla eta, agian, irudi eta dei-tonu batzuk eta beste eduki batzuk ezingo dituzu kopiatu, aldatu, transferitu edo berriro bidali.

1. Sakatu **Menú** eta aukeratu *Galería*. Karpeten zerrenda bistaratuko da. *Imágenes, Videoclips, Temas, Gráficos, Tonos* eta *Grabs. voz* telefonoko karpeta originalak dira.
2. Joan ireki nahi duzun karpetara, sakatu **Abrir** karpetako artxiboen zerrenda ikusteko edo sakatu **Opcs.** eta aukera hauetako bat:
Borrar carpeta, Mover, Renombr. carpeta, Descargas, Detalles, Tipo de vista, Clasificar, Añadir carpeta, Estado de la memoria eta *Lista claves activ.*
3. Karpeta bat ireki baduzu, hautatu bistaratu nahi duzun fitxategia eta sakatu **Abrir**. Aurrez *Temas* hautatu baduzu, joan gaira eta sakatu *Ver* gaien paketea irekitzeko.

Hautatu artxibo bat eta ireki, edo sakatu **Opc.** eta erabili hautatutako fitxategirako erabilgarri egon daitezkeen funtzio hauetako bat: *Borrar, Enviar, Editar imagen, Mover, Renombrar, Fijar como p.tapiz, Fijar como señal, Aplicar tema, Detalles, Tipo de vista, Clasificar, Borrar todo, Abrir en secuencia, Silenciar audio (Activar audio), Fijar contraste, Añadir carpeta, Estado memoria, Activar contenido eta Lista claves activ.*

Enviar, hautatutako fitxategia MMS bidez, infragorrien bidez edo Bluetooth haririk gabeko teknologiaren bidez bidaltzeko.

Borrar todo, hautatutako karpetako fitxategi eta karpeta guztiak ezabatzeko.

Editar imagen, testua, marko bat edo clipart-a hautatutako irudian sartzeko edo irudia mozteko.

Abrir en secuencia, karpetako fitxategiak banan-banan ikusteko.

Reproducir, mezu bateko irudi-fitxategi bat ikusteko edo soinu-fitxategi bat entzuteko.

Ampliar, mezuan dagoen irudiaren tamaina handitzeko.

Silenciar audio (Activar audio), soinu-fitxategia isilarazteko (edo aktibatzeke).

Fijar contraste, irudiko kontrastearen maila doitzeko.

Activar contenido, hautatutako fitxategiaren aktibatze-kodea eguneratzeko. Aukera hau agertzeko, fitxategiak aktibatze-kodeak eguneratzea onartu behar du.

Lista *claves activ.* eskura dauden aktibatze-kode guztien zerrenda bistartzeko. Aktibatze-kodeak ezaba ditzakezu, adibidez, iraungitakoak.

■ Multimedia



Grabagailua

Hitzaldi bateko zatiak, soinuak edo dei aktiboak graba ditzakezu, bost minutuz, gehienez. Adibidez, erabilgarria izan ohi da izen bat eta telefono-zenbaki bat grabatzeko eta gero idazteko.

Ezin da grabagailurik erabili, datu-dei bat edo GPRS konexio bat aktibatuta daudenean.

Grabazioa

1. Sakatu **Menú**, aukeratu *Multimedia* eta *Grabadora*.



Oharra: Telefonoan Deitzeko sakatzea zerbitzua ezin bada erabili, PTT tekla ere saka dezakezu *Grabadora* aktibatzeko.

2. Grabaketari ekiteko, aukeratu *Grabar*. Dei batean zehar grabatzen hasteko, sakatu *Ops.* eta aukeratu *Grabar*. Dei bat grabatu bitartean, solaskideek txistu ahul bat entzungo dute bost segundoan behin.
3. Grabazioa amaitzeko, sakatu *Detener*. Grabazioa *Galería* menuko *Grabs. voz* karpetan gordeko da.
4. Egindako azken grabazioa entzuteko, hautatu *Repr. último grab.*

1. Egindako azken grabazioa bidaltzeko, hautatu *Enviar último grab.* Grabazioa infragorrien bidez, MMS bidez edo Bluetooth haririk gabeko teknologiaren bidez bidal daiteke.

Grabazioen zerrenda

Sakatu *Menú* eta hautatu *Multimedia*, *Grabadora* eta *Lista grabaciones*. *Galería* aukeran eskura dituzun karpeten zerrenda bistaritzen da. Ireki *Grabs. voz* grabazioen zerrenda ikusteko.

■ Deitzeko sakatzea



Deitzeko sakatzea bi noranzkoko irradi-zerbitzu bat da, eta GSM / GPRS sare zelular baten bidez erabil daiteke (sare-zerbitzua). Zerbitzu horrek zuzeneko ahots-komunikazioa eskaintzen du, PTT teklaren bidez.

Deitzeko sakatzea zerbitzua erabil dezakezu, pertsona batekin edo pertsona-talde batekin hitz egiteko, baldin eta gailu bateragarriak badituzte. Deia konektatzen denean, deia jasotzen duen pertsonak edo taldeak ez du telefonoa hartu beharrik. GPRS kontagailuez gain, telefonoan noranzko bakarreko deiak baino ez dira erregistratzen, *Registro llams.*-eko azken deien zerrendetan. Solaskideek komunikazioa jaso dutela jakinarazi behar dute –dagokienean–, ez baitago hartzaileak deia entzun duela egiaztatzeko beste modurik.

Zerbitzuaren erabilgarritasunari edo kostuei buruzko informazioa eskuratzeko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin. Desplazamendu-zerbitzuak dei arruntek baino muga gehiago izan ditzakete.

Zerbitzu-hornitzaileak Deitzeko sakatzea zerbitzua ezin badizu eskaini, telefonoaren PTT teklak *Grabadora* aktibatuko du.

Deitzeko sakatzea zerbitzua erabili baino lehen, zerbitzu horretarako behar diren doikuntzak definitu behar dituzu.

Deitzeko sakatzea zerbitzura konektatuta zauden bitartean, telefonoaren gainerako funtzioak erabili ahal izango dituzu. Deitzeko sakatzea zerbitzuarekin batera, ez dago konektatuta ahots bidezko komunikazio arrunta, eta, beraz, ahots bidezko dei arruntetan erabil daitezkeen hainbat zerbitzu ezin dira erabili Deitzeko sakatzea komunikazioetan (ahots-postontzia, esate baterako).



Deitzeko sakatzea menua

Sakatu *Menú* eta hautatu *PPH*. Deitzeko sakatzea menuan hautatzeko zerrenda azalduko da.

- Deitzeko sakatzea zerbitzura konektatzeko edo deskonektatzeko, hautatu *Activar PPH* edo *Desactivar PPH*.
- Deiak itzultzeko eskaerak ikusteko, hautatu *B. entr. dev. llam..*
- Deitzeko sakatzea taldeen zerrenda ikusteko, hautatu *Lista de grupos*.
- Deitzeko sakatzea helbideen zerrendan sartutako kontaktuak ikusteko, hautatu *Lista de contactos*.
- Deitzeko sakatzea talde berri bat telefonoan sartzeko, hautatu *Añadir grupo*.
- Deitzeko sakatzea zerbitzuaren doikuntzak definitzeko, hautatu *Ajustes de PPH*.

- Deitzeko sakatzea konexioa egiteko behar diren doikuntzak definitzeko, hautatu *Ajustes de configuración*.
- Nabigatzailea ireki eta Deitzeko sakatzea zerbitzurako zerbitzu-hornitzaileak eskaintzen duen sare-atarira konektatzeko, hautatu *Web*.

Deitzeko sakatzea zerbitzua konektatzea eta deskonektatzea

- Deitzeko sakatzea zerbitzura konektatzeko, sakatu *Menú*, hautatu *PPH* eta *Activar PPH*. () ikurrak adierazten du Deitzeko sakatzea konexioa ezarri dela. () ikurrak adierazten du zerbitzua ezin dela denbora-tarte batean erabili. Telefonoa berriz saiatzen da automatikoki zerbitzura konektatzen, deskonektatzea erabaki arte. Telefonora talde bat gehitzen baduzu, automatikoki gehituko zaie talde aktiboiei (*Predeterminado* edo *Escuchado*), eta lehenetsitako taldearen izena telefonoan bistaratuko da, pantaila zuri dagoenean.
- Deitzeko sakatzea zerbitzutik deskonektatzeko, hautatu *Desactivar PPH*.

Deia itzultzeko eskatzea

Pertsona bati deitu eta erantzuten ez badu, pertsona horrek deia itzultzeko eskaera bidaltzeko aukera dago.

Deia itzultzeko eskaera jasotzean, *Petición de devolución de llam. recibida* mezua pantaila zuri dagoela azaltzen da. Kontaktuen zerrendan ez dagoen norbaiten deia itzultzeko eskaera jasotzen baduzu, aurkibidean izena gorde dezakezu.

Deia itzultzeko eskaera bidaltzea

- *Pulsar para hablar* menuaren kontaktuen zerrendatik deia itzultzeko eskaera bat bidaltzeko, hautatu *Lista de contactos*. Nahi duzun kontaktua hautatu, sakatu *Opcs.* eta aukeratu *Enviar devol. Ilam.*.
- *Guía*-tik deia itzultzeko eskaera bidaltzeko, sakatu joystick-a beherantz eta nahi duzun kontakturaino joan. Sakatu *Detalles*, joan Deitzeko sakatzea helbideraino, sakatu *Opcs.* eta hautatu *Enviar devol. Ilam.*.
- *Pulsar para hablar* menuaren taldeen zerrendatik deia itzultzeko eskaera bat bidaltzeko, hautatu *Lista de grupos* eta nahi duzun talderaino joan. Sakatu *Opcs.*, hautatu *Miembros activos*, nahi duzun kontakturaino joan, sakatu *Opcs.*, eta hautatu *Enviar devol. Ilam.*.
- *Pulsar para hablar* menuaren deia itzultzeko eskaeren zerrendatik deia itzultzeko eskaera bat bidaltzeko, hautatu *B. entr. dev. Ilam.*. Nahi duzun kontaktua hautatu, sakatu *Opcs.* eta aukeratu *Enviar devol. Ilam.*.

Deia itzultzeko eskaera bati erantzutea

1. *B. entr. dev. Ilam.* irekitzeko, sakatu *Ver*. Deia itzultzeko eskaera bidali dizuten pertsonen ezizenen zerrenda bistaritzen da.
2. Pertsona bati deitzeko, sakatu *PTT* tekla.
3. Bidaltzaileari deia itzultzeko eskaera bat bidaltzeko, sakatu *Opcs.* eta hautatu *Enviar devol. Ilam.*.

Eskaera ezabatzeko, sakatu *Borrar*.

Deia itzultzeko eskaeraren bidaltzailea gordetzea

1. *B. entr. dev. llam.* irekitzeko, sakatu **Ver**. Deia itzultzeko eskaera bidali dizuten pertsonen ezizenen zerrenda bistaratzeko da.
2. Deitzeko sakatzea zerbitzuaren bidaltzailearen helbidea ikusteko, sakatu **Opcs.** eta hautatu *Ver dirección PPH*.

Kontaktu berri bat gordetzeko edo Deitzeko sakatzea zerbitzuaren helbide bat kontaktuetara gehitzeko, sakatu **Opcs.** eta hautatu *Guardar como* edo *Añadir al contacto*.

Deitzeko sakatzea aukerarekin deiak egitea eta jasotzea

Definitu telefonoan bozgorailua edo entzungailua erabiltzeko aukera, Deitzeko sakatzea komunikaziorako. Entzungailua aukeratu baduzu, telefonoa ohiko moduan erabili ahal izango duzu (belarri ondoan eutsita).



Oharra: bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta. Deitzeko sakatzea zerbitzura konektatzean, noranzko bakarreko deiak edo talde-deiak egin edota jaso ahal izango dira. Norazko bakarreko deia pertsona bakar bati egiten zaion deia da.

Talde-dei bat egitea

- Aurrez zehaztutako talde bati deitzeko, sakatu PTT tekla. Sartu dela adierazten duen tonua entzungo da, eta, telefonoaren pantailan, ezizena eta taldearen izena azalduko da.

Aurrez lehenetsi ez den talde batera deitzeko, hautatu *Lista de grupos* Deitzeko sakatzea menuan, nahi duzun taldea aukeratu eta sakatu PTT tekla.

- Elkarrizketak irauten duen bitartean, PTT tekla sakatuta eduki eta telefonoa zure aurrean jarri, pantaila ikusteko moduan. Amaitzen duzunean, askatu PTT tekla. Eskera egiten duen lehenbiziko pertsonak hitz egiten du lehenbizi. Hitz egiten ari dena isiltzen denean, PTT tekla sakatzen duen lehenak hitz egingo du hurrena.

Noranzko bakarreko deia egitea

- Zerbitzu-hornitzailetik jasotako Deitzeko sakatzea helbidea kontaktuen zerrendan sartu baduzu eta zerrenda horretatik noranzko bakarreko deia egin nahi baduzu, aukeratu *Lista de contactos*. Nahi duzun kontakturaino joan eta sakatu PTT tekla.

Bestalde, *Guía*-tik ere kontaktua hauta dezakezu.

- Deitzeko sakatzea taldeen zerrendatik noranzko bakarreko deia egiteko, hautatu *Lista de grupos* eta nahi duzun talderaino joan. Sakatu *Opcs.*, hautatu *Miembros activos*, nahi duzun kontaktura joan eta sakatu PTT tekla.
- Jasotako deiak itzultzeko eskaeren zerrendatik noranzko bakarreko dei bat egiteko, hautatu *B. entr. dev. llam.*. Nahi duzun ezizenera joan eta sakatu PTT tekla.

Talde-dei bat edo noranzko bakarreko dei bat jasotzea

- Tonu labur batek jakinaraziko dizu talde-dei bat edo noranzko bakarreko dei bat jasotzen ari zarela. Talde-dei bat jasotzean, pantailan taldearen izena eta deia egin duen pertsonaren ezizena azalduko dira. *Guía*-n sartuta dagoen pertsona baten noranzko bakarreko deia jasotzean, gordeta duzun azalduko da pantailan, dei-egilea identifikatzen baldin bada; bestela, deia egiten ari den pertsonaren ezizena besterik ez da azalduko.
- Noranzko bakarreko deia onar dezakezu edo ez, baldin eta telefonoa noranzko bakarreko deiak direla jakinarazteko definitu baduzu.
- Solaskideren bat hitz egiten ari den bitartean, taldeari erantzuteko PTT tekla sakatzen baduzu, itxaroteko tonua entzun eta telefonoaren pantailan *En cola* azalduko da, PTT tekla sakatuta duzun bitartean. PTT tekla sakatuta eduki, eta itxaron hitz egiten ari den pertsonak amaitu arte; gero, hitz egin ahal izango duzu.

Noranzko bakarreko kontaktuetara atxikitzea

Bakarkako deia egiten diezun pertsonen izenak gorde ditzakezu.

- Deitzeko sakatzea helbide bat *Guía*-ko izen bati esleitzeko: Sakatu joystick-a behera, pantaila zuri dagoela; nahi duzun kontakturaino joan eta sakatu *Detalles*. Sakatu *Opcs.*, aukeratu *Añadir detalle* eta *Dirección PPH*.
- Deitzeko sakatzea kontaktuen zerrendan kontaktu berri bat sartzeko:

Deitzeko sakatzea kontaktua gehitzeko, ireki Deitzeko sakatzea menua eta hautatu *Lista de contactos*. Sakatu *Opcs.* eta aukeratu *Añadir contacto*.

- Taldeen zerrendatik kontaktu bat gehitzeko:

Deitzeko sakatzea zerbitzura konektatuta zaudela, aukeratu *Lista de grupos*, nahi duzun talderaino joan eta sakatu *Opcs.*. Hautatu *Miembros activos*, gorde nahi dituzun datuei dagozkien izeneraino joan eta sakatu *Opcs.*. Hautatu *Guardar como* kontaktu berri bat gehitzeko edo *Añadir al contacto* Deitzeko sakatzea helbide bat *Guía*-ko izen bati esleitzeko.

Taldeak sortzea eta definitzea

Talde-dei bat egitean, taldeko kide guztiek aldi berean entzuten dute deia.

Taldea osatzen duten guztiek dute ezizena, eta deitzen duen pertsonaren ezizena azalduko da identifikatzaile gisa. Taldeko kideek nahi duten ezizena erabil dezakete talde bakoitzerako.

Taldeak URL helbide batekin erregistratzen dira. Erabiltzaileek taldearen URLa erregistratzen dute sare batean, talde-saio batean sartzen diren lehenengo aldian.

Deitzeko sakatzea zerbitzuan hiru talde-mota daude:

- Zerbitzu-hornitzaileak emandako taldeak talde itxiak dira, eta hautatutako solaskideek baino ezin dute sartu.
- Ad hoc taldeak erabiltzaileek sor ditzakete. Talde propioa sortu eta pertsonak gonbida daitezke.

- Ad hoc pro taldeak zerbitzu-hornitzaileak emandako talde bateko kideekin batera talde propio bat sor daiteke. Adibidez, enpresa batean talde itxi bat izan daiteke eta, horrez gain, enpresaren eremu batzuetarako sortutako talde independenteak ere izan daitezke.

Talde bat gehitzea

1. Sakatu **Menú**, hautatu *PPH*, *Añadir grupo* eta *Guiado*.
2. Taldearen segurtasun-maila definitzeko, hautatu *Grupo abierto* edo *Grupo seguro*.
Grupo seguro hautatzen baduzu, telefonoak automatikoki zati kodetua sortuko du taldearen helbidean. Taldeko kideek ezin dute zati hori ikusi, taldearen gonbita jasotzen dutenean. Talde segurua sortu duen pertsonak bakarrik gonbita ditzake kide gehiago.
3. Sartu taldearen izena eta sakatu **Aceptar**.
4. Aukeratu taldearen egoera: *Predeterminado*, *Escuchado* o *Inactivo*. Telefonoak adierazten du taldea gorde egin dela eta taldearen egoera zein den. *Predeterminado* eta *Escuchado* talde aktiboak dira. Talde-deia egiteko PTT tekla sakatzen bada, lehenetsitako taldeari deituko zaio, beste talde edo kontaktu batera mugitu ez bada.
5. Taldeari gonbita bidaltzeko, sakatu **Sí** telefonoak gonbita bidaltzeko eskatzean. Gonbita testu-mezuen, infragorrien edo Bluetooth haririk gabeko teknologiaren bidez bidal daiteke.

Talde irekietara gonbidatzen dituen pertsonak, aldi berean, pertsona gehiago gonbita ditzakete taldera.

Gonbidapena jasotzea

1. Talde batera gonbidatzeko testu-mezu bat jasotzean, pantailan *Invitación de grupo recibida*: azalduko da.
2. Gonbidapena bidali dion pertsonaren ezizena eta taldearen helbidea ikusteko, taldea talde segurua ez bada, sakatu **Ver**.
3. Taldea telefonoan sartzeko, sakatu **Guardar**; taldearen egoera definitzeko, hautatu *Predeterminado*, *Escuchado* edo *Inactivo*. Gonbidapena ez onartzeko, sakatu **Salir** eta **Sí**, edota sakatu **Ver**, **Descart.** eta **Sí**.

Deitzeko sakatzea aukeraren doikuntzak

Deitzeko sakatzea zerbitzuan bi doikuntza-mota egin daitezke: zerbitzua erabiltzeko eta zerbitzura konektatzeko doikuntzak.

Zerbitzura konektatzeko doikuntzak sare-operadorearen edo zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-mezu baten bidez jaso ditzakezu; ikus *Konfigurazioa* deitzeko zerbitzua, 19. orrialdean. Doikuntzak eskuz sartzeko, ikus *Konfigurazioa* deitzea 108. orrialdean.

Zerbitzura konektatzeko doikuntzak egiteko, sakatu **Menú** eta aukeratu *PPH*, *Ajustes configur.*. Hauta ezazu aukera hauetako bat:


- *Configuración*. Deitzeko sakatzea zerbitzuan ezar daitezkeen konfigurazioak azaltzen dira bakarrik. Hautatu zerbitzu-hornitzaile bat edo *Predeterminados* edo *Config. personal*, Deitzeko sakatzea zerbitzurako. Deitzeko sakatzea zerbitzua deitzekoak konfigurazio-mezu gisa jaso ditzakezu. Ikus *Konfigurazioa* deitzeko zerbitzua 19. orrialdean. Konfigurazioa eskuz deitzeko, ikus *Konfigurazioa* deitzea 108. orrialdean.

- *Cuenta* eta hautatu konfigurazio-doikuntza aktiboetan Deitzeko sakatzea zerbitzuaren kontu bat.
- Hautatu aukera hauek, banan-banan, hurrengoa konfiguratzeko: *Nombre de usuario de PPH*, *Alias predeterminado*, *Contraseña PPH*, *Dominio* eta *Dirección del servidor*.

Deitzeko sakatzea erabiltzeko doikuntzak egiteko, sakatu *Menú*, aukeratu *PPH* eta *Ajustes de PPH*. Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- *Llamadas 1 a 1* eta *Activar* telefonoan sartzen diren noranzko bakarreko deiak jaso ahal izateko. *Desactivar* hautatzen baduzu, noranzko bakarreko deiak egin ahal izango dira, baina ez jaso. Zerbitzu-hornitzaileak doikuntza horiek indargabetzen dituzten hainbat zerbitzu eskain ditzake.
- *Llamadas 1 a 1* eta *Notificar*, noranzko bakarreko dei guztiak dei-seinalearekin ohartarazteko moduan definitzeko.
- *Grupos escuchados* eta *Activar*, entzuteko taldeak aktibatzeko.
- *Estado de PPH en inicio* eta *Sí*, telefonoa piztean automatikoki Deitzeko sakatzea zerbitzura konektatzeko moduan konfiguratzeko.
- *Enviar mi dirección PPH* eta *No*, talde-deiak eta noranzko bakarreko deiak egitean Deitzeko sakatzea helbidea ezkutatzeko.

■ Antolatzailea



Alarma

Alarmak ordu jakin batean jo dezan konfiguratu daitezke telefonoa.

Sakatu **Menú**, aukeratu *Organizador* eta *Alarma*.

Alarma konfiguratzeko, aukeratu *Hora de alarma* eta sartu alarmaren ordua. Alarmak jotzeko definituriko ordua aldatzeko, aukeratu *Activar*. Hautatu *Repetir alarma*, telefonoa hautatutako asteko egun guztietan alarmak jotzeko moduan konfiguratzeko.

Hautatu *Señal de alarma* eta aurrez zehaztutako alarma-seinalea hautatu ahal izango duzu, eta hautatutako alarma-seinalea dei-seinaleen zerrendan edo Galerian pertsonalizatu.

Alarma abiaraztea

Telefonoak abisu-tonu bat joko du eta pantailan *¡Alarma!* mezua eta ordua bistaratuko dira, telefonoa itzalita egon arren. Sakatu **Detener** alarma geldiarazteko. Telefonoari minutu batez ohar-tonua jotzen uzten badiozu edo **Repetir** sakatzen baduzu, alarma hamar bat minutuz gelditzen da eta, gero, berriro jotzen du.

Telefonoa itzalita dagoela programaturiko alarma-ordua iristen bada, gailua automatikoki piztuko da eta alarma-tonua jotzen hasiko da. **Detener** sakatzen baduzu, telefonoa deiak egiteko aktibatu nahi ote duzun galdetuko dizu telefonoak. Sakatu **No** telefonoa itzaltzeko, edo **Sí** deiak egin eta jasotzeko. Ez sakatu **Sí** telefono mugikorra erabiltzeak interferentziak edo arriskuren batzuk sor baditzake.

Agenda

Agendak memoria partekatua ibiltzen du. Ikus Memoria partekatua, 15. orrialdean.

Sakatu **Menú**, aukeratu *Organizador* eta *Agenda*. Egunaren inguruko koadroak adierazten du uneko data. Egun horretarako oharren bat definituta badago, beltzez agertuko da. Eguneko oharrak ikusteko, sakatu **Ver**. Astea ikusteko, sakatu **Opcs.** eta hautatu *Vista de la semana*. Ohar bakar bat ikusteko, sakatu **Ver**.

Agendaren eguneko ikuspegian, aukera hauek daude: ohar bat sortu, ezabatu, editatu, mugitu edo errepikatzea; ohar bat beste egun batera pasatzea; ohar bat Bluetooth teknologiaren bidez bidaltzea; ohar bat beste telefono bateragarri baten agendara bidaltzea, testu-mezu edo multimedia-mezu gisa. Hautatu *Ajustes* eguna, ordua, ordu-eremua, egunaren edo orduaren formatua eta asteko lehen eguna definitzeko. *Borrar notas automáticamente* aukerak, denbora-tarte jakin bat pasatu ondoren, ohar zaharrak automatikoki ezabatzeko moduan konfiguratzeko aukera ematen du.



Egutegiko ohar guztiak ezabatzeko, hautatu hilabeteka edo asteka bistaratzea, sakatu **Opcs.** eta hautatu *Borrar notas*.

Agendan ohar bat sortzea

Sakatu **Menú**, aukeratu *Organizador* eta *Agenda*. Mugitu nahi duzun dataraino, sakatu **Opcs.** eta aukeratu **Crear una nota**. Aukeratu ohar-mota hauetako bat:

 *Reunión*,  *Llamar a*,  *Cumpleaños*,  *Memorándum* edo  *Nota de aviso*.

Ohar bati lotutako alarma aktibatzea

Telefonoak soinu bat emititzen du eta pantailan oharra agertzen da. Pantailan dei-ohar bat agertzen denean, , bistaratutako zenbakira dei dezakezu  tekla sakatuta. Alarma geldiarazi eta oharra ikusteko, sakatu **Ver**. Sakatu **Repetir** eta telefonoak berriro emitituko du alarma-seinalea (hamar minutura). Alarma oharra ikusi gabe gelditzeko, sakatu **Salir**.

Zereginen zerrenda

Gauzatu beharreko lan jakin baterako oharra gorde dezakezu, oharraren lehentasun-maila aukera dezakezu eta amaitutakoan egina bezala marka dezakezu. Oharrak lehentasunaren edo dataren arabera sailka ditzakezu. Zereginen zerrendak memoria partekatua erabiltzen du; ikus *Memoria partekatua*, 15. orrialdean.

Sakatu **Menú**, aukeratu *Organizador* eta aukeratu *Lista de tareas*.

Sakatu **Añ. Nota**, ohar bat idazteko. Idatzi oharra eta sakatu **Guardar**. Hautatu oharraren lehentasuna. Telefonoak automatikoki definitzen du oharrarentzako alarmerik gabeko muga-denbora. Azken eguna aldatzeko, irakurri oharra eta hautatu azken egunerako aukera.

Edota mugitu ohar batera eta sakatu **Ver** edo **Opcs.**. Ohar berri bat gehitzeko, aukeratu *Añadir*. Adibidez, aukeratutako oharra ikusi eta ezaba daiteke; baita eginda bezala markatutako ohar guztiak ezabatu ere. Oharrak lehentasunaren edo mugaegunaren arabera ordena daitezke, beste telefono batera ohar bat bidal daiteke, ohar bat agendako ohar gisa gorde edo agendara sartu. Ohar bat ikusten ari zaren bitartean, aukeratutako ohar hori editatzeko aukera hauta daiteke, mugaeguna edo lehentasuna editatu edo eginda bezala marka daiteke.

Oharrak

Aplikazio hau erabil dezakezu, oharrak idatzi eta MMS bidez gailu bateragarrietara bidaltzeko. Oharren aplikazioak memoria partekatua erabiltzen du. Ikus Memoria partekatua, 15. orrialdean.

Sakatu **Menú**, aukeratu *Organizador* eta *Notas*. Telefonoak eguna eta ordua definitzeko eskatuko dizu, betiere oharra idazten hastean definitu ez badituzu. Ohar bat gehitzeko, sakatu **Añ.** nota edo **Opcs.** eta hautatu *Crear una nota*. Idatzi oharra eta sakatu *Guardar*. Edota joan ohar batera eta sakatu **Ver** edo **Opcs.**, oharren aukerak ikusteko.

Notas aukeraren **Opcs.**-ekin ohar bat ezabatu eta editatu daiteke. Ohar bat editatzean, testu-editoretik atera ahal izango zara aldaketarik gorde gabe. Oharra gailu bateragarrietara bidal dezakezu, testu-mezuen, multimedia-mezuen, infragorrien edo Bluetooth haririk gabeko teknologiaren bidez. Oharra testu-mezu gisa bidaltzeko luzeegia bada, telefonoak oharrean zenbat karaktere ezabatu behar dituzun adieraziko dizu.

Diru-zorroa

Monedero aukeran, informazio pertsonala gorde dezakezu, adibidez, kreditu-txartelen zenbakiak eta helbideak. Diru-zorroan gordetzen diren datuak erraz berreskura daitezke, automatikoki datu-eremuak beteta, adibidez, erosketak egiten dituzunean edo zerbitzuak diru-zorroaren funtzio hau onartzen duenean. Erabiltzaile-izena eta pasahitza eskatzen duten mugikorreko zerbitzuetako kodeak ere gorde ditzakezu.

Diru-zorroko datuak diru-zorroaren kodearen bidez daude babestuta; kode horiek norberak defini ditzake diru-zorrora sartzen den lehen aldian. Pantailan *Cree el código del monedero*: mezua bistaratzen denean, idatzi diru-zorroaren kodea eta sakatu *Aceptar* berresteko; *Confirme el código del monedero*: mezua bistaratzen denean, idatzi berriro kodea eta sakatu *Aceptar*. Ikus, halaber, Diru-zorroaren kodea (4 eta 10 digitu bitartean), 18. orrialdean.

Diru-zorroko informazio guztia eta diru-zorroaren kodea ezabatu nahi baduzu, sakatu *#7370925538# (*#res wallet# teklak alfabeto-moduan erabilita) pantaila zuri dagoela. Horretarako, telefonoko segurtasun-kodea ere beharrezkoa da; ikus *Sarbide-kodeak*, 16. orrialdean.

Diru-zorroko menuan edukia sartzeko eta editatzeko, sartu diru-zorroaren menuan. Diru-zorroaren edukia zerbitzu mugikor batean erabiltzeko, sartu diru-zorrora nabigatzailearen bidez. Ikus *Web* 139. orrialdean.

Diru-zorroa menura sartzea

Diru-zorroaren menura sartzeko, sakatu *Menú*, aukeratu *Organizador* eta *Monedero*. Sartu diru-zorroaren kodea eta sakatu *Aceptar*. Ikus *Diru-zorroaren doikuntzak*, 131. orrialdean.

Hautatu *Modos moned.* txartel-konbinazioak sortzeko; *Tarjetas* informazio pertsonala gordetzeko; *Tickets* zerbitzu mugikor baten bitartez egindako erosketen sarrera elektronikoen ohartarazpenak gordetzeko; *Recibos* mugikorrarekin egindako erosketen ordainagiriak gordetzeko; *Notas personales* diru-zorroaren PIN kodearekin edo *Ajustes*-ekin babestu nahi duzun informazio pertsonala gordetzeko. *Ikus Diru-zorroaren doikuntzak*, 131. orrialdean.

Txartelen xehetasunak biltegitratzea

Sartu diru-zorrora eta hautatu *Tarjetas*. Hautatu txartel-mota xehetasunak gordetzeko: *Tarjetas pago*, *Tarjs. fidelidad*, *Tarjetas acceso*, *Tarjs. info usua*. edo *Tarjetas direccs.*. Beste txartelik eransten ez bada, sakatu *Nueva*; bestela, sakatu *Opcs.* eta hautatu *Añadir nueva*. Bete xehetasunen eremuak eta sakatu *Hecho*.

Zerbitzu-hornitzaileak onartzen badu, txartelari buruzko informazioa jaso dezakezu telefonoan, konfigurazio-mezu gisa. Txartela zein mailatakoa den adieraziko dizu. Txartelen informazioa, konfigurazio-doikuntza adibidez, eskura dagoen jakiteko, jarri harremanetan txartelak igorri dituen erakundearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

Ohar pertsonalak

Ohar pertsonalak gorde daitezke, adibidez, kontu-zenbakiak, pasahitzak, kodeak edo oharra.

Sartu diru-zorrora eta hautatu *Notas personls*. Sakatu *Opcs.*, eta hautatutako oharra ikusi, erantsi edo editatu ahal izango duzu, edota oharra izenaren edo dataren arabera ordenatu edo ezabatu. Oharra bistaratzean, editatu edo ezabatu egin dezakezu. *Enviar como texto* aukera oharra testu-mezu gisa kopiatzeko erabiltzen da; *Copiar a la agenda* aukera, berriz, oharra agendan memorandum gisa kopiatzeko. *Usar detalle* ohar batetik zenbakiak, helbide elektronikoak eta Interneteko helbideak ateratzeko erabiltzen da.

Diru-zorroaren modu bat sortzea

Txarteleko xehetasun pertsonalak gorde ondoren, konbinatu egin ditzakezu diru-zorroaren modua sortzeko. Modu hori erabil dezakezu, nabigatzen ari zaren bitartean, txarteletatik diru-zorroko datuak berreskuratzeko.

1. Sartu diru-zorrora eta hautatu *Modos moned.*
2. Diru-zorroaren modu berri bat sortzeko, modurik eransten ez bada, sakatu Nueva. Bestela, sakatu Opcs. eta hautatu *Añadir nueva.*
3. Bete eremu hauek eta sakatu Hecho. Hautatu *Seleccione tarjeta de pago a continuación, Seleccione tarjeta de fidelidad a continuación, Seleccione tarjeta de acceso a continuación, Seleccione tarjeta info del usuario a continuación, Seleccione dirección de facturación a continuación, Seleccione dirección de envío a continuación, Seleccione direcc. entrega de recibo a continuación, Seleccione modo entrega de recibo a continuación* eta *Nombre de modo de monedero.*

Diru-zorroaren doikuntzak

Sartu diru-zorrora eta hautatu *Ajustes.* Hautatu *Cambiar código,* diru-zorroaren kodea aldatzeko. Hautatu *RFID ID RFID Código de RFID* eta *Tipo de RFID* aukeren bidez konfiguratzeko. (RFID = Irrati-maiztasunaren identifikazioa, Radio Frequency Identification, telefonoaren bidez egiten diren transakzio komertzialen operazioak bideratzeko teknologia)

Erosketak diru-zorroarekin ordaintzeko jarraibideak

- Erosketak egiteko, sartu diru-zorroa onartzen duen eta erabili nahi duzun zerbitzuaren gunera. Zerbitzuak Electronic Commerce Modelling Language espezifikazioa onartu behar du. Ikus Zerbitzu batekin konexio bat ezartzeko atala, 140. orrialdean.

Hautatu erosi nahi duzun produktua, eta, erosi aurretik, irakurri lasai ematen zaizun informazio guztia.

Baliteke testuak hainbat pantaila betetzea. Beraz, ziurtatu pantaila guztietan mugitu zarela eta testu osoa irakurri duzula erosketa egin aurretik.

- Erosi nahi dituzun artikuluak ordaintzeko, telefonoak diru-zorroa erabili nahi duzun ala ez galdetzen du. Halaber, telefonoak diru-zorroaren PIN kodea galdetzen du.
- Hautatu ordainketa egiteko txartela ordainketa-txartelen zerrendan. Zerbitzu-hornitzaileak bidalitako formularioak Electronic Commerce Modelling Language espezifikazioa onartzen badu, telefonoak automatikoki betetzen du kreditu-txartelari buruzko informazioa edo diru-zorroaren modua diru-zorrotik bertatik.
- Berretsi erosketa eta informazioa bidali egingo da.
- Erosketa jaso izanaren jakinarazpena edo agiri elektronikoa bat jaso dezakezu.
- Diru-zorroa ixteko, aukeratu *Cerrar monedero*. Diru-zorroa bost minutuz erabiltzen ez baduzu, automatikoki itxiko da.

Cachea tarteko memoria da, datuak aldi baterako gordetzeko erabiltzen dena. Pasahitza eskatzen duen informazio konfidentzialera sartzen saiatzen bazara edo sartzen bazara, hustu telefonoaren cachea erabiltzen duzun bakoitzean. Sartu zareneko informazioa edo zerbitzuak cache memorian jasotzen dira.

Cache-a husteko, ikus Cache memoria 147. orrialdean.

Sinkronizatzea

Sinkronizazioaren bidez, agendako edo aurkibideko datuak urruneko Internet zerbitzarian (sare-zerbitzua) edo PC bateragarri batean gorde daitezke. Datuak urruneko Internet zerbitzarian gorde badituzu, sinkronizazioa telefonotik hasiz, telefonoa sinkroniza dezakezu. Telefonoko aurkibideko, agendako eta oharretako datuak ere sinkroniza daitezke, PC bateragarriko datuekin bat etor daitezen, PCTik sinkronizatuz.

SIM txarteleko harremanetarako datuak ez dira sinkronizatzen.

Sinkronizazioa telefonotik

Telefonotik Internet bidez sinkronizatu baino lehen, sinkronizazio-zerbitzu batean harpidetu eta hornitzailearen konfigurazio-doikuntzak lortu behar dituzu. Sinkronizazio-zerbitzuei eta horien aukerei buruzko informazioa lortu nahi baduzu, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Telefonotik sinkronizatzen hasteko:

1. Aktibatu sinkronizatze behar dituzun konexio-doikuntzak. Ikus Telefonotik sinkronizatzen hasteko, 134. orrialdean.
2. Sakatu **Menú**, hautatu *Organizador*, *Sincronización* eta *Sincronización con servidor*. Hautatu *Datos para la sincronización*, markatu sinkronizatu behar dituzun datuak eta sakatu **Hecho**. Gero, hautatu *Sincronizar*. Baieztatu ondoren, multzo aktiboko markatutako datuak sinkronizatuko dira.

Telefonotik sinkronizatzen hasteko

Sinkronizazio-doikuntzak zerbitzu-hornitzaileak bidaliko dizkizu konfigurazio-mezu gisa. Sinkronizazio-zerbitzuei eta horien aukerei buruzko informazioa lortu nahi baduzu, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin. Doikuntzak konfigurazio-mezu gisa jasotzeko, ikus *Konfigurazioa* doitzeko zerbitzua 19. orrialdean. Doikuntzak eskuz sartzeko, ikus *Konfigurazioa* doitzea 108. orrialdean.

Sakatu *Menú*, hautatu *Organizador*, *Sincronización*, *Sincronización con servidor* eta *Ajustes de sincronización*. Hautatu *Configuración*, eta doikuntzak aktibatu nahi dizkiozun zerbitzu-hornitzailearaino joan eta sakatu *Selecc.*. Hautatu *Cuenta*, zerbitzu-hornitzaileak emandako kontuak ikusteko. Kontu bat baino gehiago azaltzen bada, hautatu erabili nahi duzuna.

Sinkronizazioa PC bateragarri batetik

PCaren aurkibidea, agenda eta oharra sinkronizatzeko, Bluetooth haririk gabeko teknologia edo datu-kablea erabili. Bestalde, PCan PC Suite softwarea instalatuta izan beharko duzu. Hasi sinkronizatzen PCtik PC Suite-rekin. Egiaztatu telefonoaren pantaila zuri dagoela eta eguna eta ordua definituta daudela.


■ Aplikazioak



Jokoak eta aplikazioak

Telefonoaren softwareak bereziki Nokia telefono honetarako diseinatutako joko batzuk eta Java aplikazioak ditu.

Joko bat edo aplikazio bat abiaraztea

Sakatu **Menú**, aukeratu *Aplicaciones*; gero, *Juegos* eta *Seleccionar juego*, edota *Colección* eta *Seleccionar aplic.*. Nahi duzun joko edo aplikaziora joan eta sakatu *Abrir* edo  .

Aukera hauek izan daitezke joko eta aplikazioetan:

- *Borrar*, telefonotik jokoa edo aplikazioa ezabatzeko.
- *Detalles*, jokoari edo aplikazioari buruzko informazio osagarria izateko.
- *Actualizar versión*, zerbitzuetatik deskargatzeko bertsio berria eskuragarri dagoen egiaztatzeko (sare-zerbitzua).
- *Página web*, Interneteko orri bati buruzko informazio xeheagoa edo datu osagarriak emateko. Beharrezkoa da sareak funtzio hori onartzea.
- *Acceso a aplicac.*, jokoa edo aplikazioa sarera sartzeko mugatzeko, espero ez diren kostuak galarazteko. Hautatu *Comunicación* eta *Acceso de red*, *Mensajes*, edota *Inicio auto*. Kategoria bakoitzean, erabilgarri badago, hautatu baimen hauetako bat: *Pregunt. cada vez*, *Preg. 1º vez sólo*, *Siempre permitido*, *No permitido*.

Jokoak eta aplikazioak deskargatzea

Telefonoak Java J2METM aplikazioak onartzen ditu. Deskargatu aurretik, ziurta ezazu aplikazioa telefonoarekin bateragarria dela.

Sakatu **Menú**, hautatu *Aplicaciones*, *Juegos* eta *Descargas juegos*, edota *Colección* eta *Descargas aplics.*. Eskura dituzun gogokoen zerrenda bistaratuko da. Aukeratu *Más favoritos*, *Web* menuko gogokoen zerrendara joateko. Ikus Gogokoak, 144. orrialdean.

Hautatu gogoko bat, zuk nahi duzun gunera konektatzeko. Konsultatu zerbitzuen erabilgarritasuna, prezioak eta tarifak, zerbitzu-hornitzailearekin.



Garrantzitsua: birusen eta bestelako programa kaltegarrien kontrako babes egokia eskaintzen duten iturrietatik datozen aplikazioak soilik instalatu.

Aplikazio bat deskargatzerakoan, kontuan izan *Juegos* menuan gorde daitekeela, *Aplicaciones* menuan gorde beharrean.

Jokoen doikuntzak

Sakatu *Menú*, aukeratu *Aplicaciones*, *Aplicaciones* eta *Ajustes aplicacs.* jokoen soinuak, argiak eta bibrazioak definitzeko.

Jokoetarako eta aplikazioetarako memoriaren egoera

Jokoak eta aplikazioak instalatzeko memorian zenbat leku duzun ikusteko (hirugarren memoria partekatua), sakatu *Menú*, eta aukeratu *Aplicaciones*, *Juegos* edo *Colección* eta *Memoria*.

Aplikazioek eta jokoek memoria partekatua erabiltzen dute, ikus *Memoria partekatua*, 15. orrialdean.

Kalkulagailua

Telefonoaren kalkulagailuak batuketak, kenketak, biderketak, zatiketak eta berreketak egiten ditu, eta, gainera, erro karratua aurkitzen du eta moneta-bihurketak egiten ditu.



Oharra: kalkulagailuak doitasun mugatua du, kalkulu errazak egiteko diseinatuta dago.

Sakatu **Menú**, aukeratu *Aplicaciones, Extras* eta *Calculadora*. Pantailan "0" agertzen denean, sar ezazu kalkuluan erabiliko duzun lehen zenbakia; behar izanez gero, sakatu **♦ #** tekla hamarrenaren komarako. Sakatu **Opcs.** eta aukeratu *Sumar, Restar, Multiplicar, Dividir, Cuadrado, Raíz cuadrada* edo *Cambiar signo*. Sartu bigarren zenbakia. Erantzuna ikusteko, sakatu *Result*. Beste kalkulu bat egiteko, **Borrar** tekla sakatuta eduki beharko duzu lehenik.

Moneta-trukea egitea

Sakatu **Menú**, aukeratu *Aplicaciones, Extras* eta *Calculadora*. Truke-tasa gordetzeko, sakatu **Opcs.** eta aukeratu *Tipo de cambio*. Aukeratu pantailan agertzen diren aukeretako bat. Sar ezazu truke-tasa (beharrezkoa izanez gero, sakatu **♦ #** tekla hamarrenaren koma idazteko) eta sakatu **Aceptar**. Truke-tasa memorian gordeko da, beste batez ordezkatu arte. Moneta-bihurketa egiteko, sar ezazu bihurtu nahi duzun kopurua, sakatu **Opcs.** eta aukeratu *A nacional* edo *A extranjera*.

Atzerako kontaktaren tenporizadorea


Sakatu **Menú**, eta aukeratu *Aplicaciones, Extras* eta *Tempor. cta. atrás*. Idatzi alarmaren ordua (orduak, minutuak eta segundoak) eta sakatu **Aceptar**. Nahi izanez gero, idatzi testu-ohar bat atzerako kontaketa amaitzen denean agertzeko, eta sakatu **Iniciar** atzerako kontaktaren tenporizadorea martxan jartzeko.

Alarmaren ordua aldatzeko, aukeratu *Cambiar tiempo*. Tenporizadorea geldiarazteko, aukeratu *Detener temporiz.*

Alarma jotzeko ordua pantaila zuri dagoela iristen bada, tonu bat entzungo da eta testu-oharra keinuka bistaratuko da, hala definituta badago; bestela, *Terminó la cuenta atrás* bistaratuko da.

Sakatu edozein tekla alarma geldiarazteko. Teklarik sakatzen ez baduzu, alarma automatikoki geldituko da 30 segundo pasatu ondoren. Alarma geldiarazi eta oharra ezabatzeko, sakatu **Salir**.

Kronometroa

Kronometroa erabilia, denbora neur dezakezu eta tarteko denborak edo fase bakoitzeko denborak izan ditzakezu. Denbora neurtzen duen bitartean, telefonoaren gainerako funtzioak ere erabil ditzakezu. Kronometroak bigarren mailan funtzionatzea nahi baduzu, sakatu .

Kronometroa edo funtzio hau beste funtzioekin batera erabiliz gero, bateria gehiago xahutzen da eta gutxiago irauten du.

Denbora neurtzea eta banatzea

1. Sakatu **Menú**, hautatu *Aplicaciones, Extras, Cronómetro* eta *Tiempo dividido*. Denbora atzeko planoan neurtzeko moduan konfiguratu baduzu telefonoa, *Continuar* aukera dezakezu.
2. Sakatu **Iniciar** denbora neurtzeari ekiteko. Sakatu **Dividido** tarteko denbora bat lortu nahi duzun bakoitzean. Tarteko denborak pantailan agertuko dira, denbora-adierazlearen azpian. Mugitu pantailan zehar denborak ikusteko.
3. Sakatu **Detener** denboraren neurketa gelditzeko.
4. Neurtutako denborak gordetzeko, sakatu **Guardar**. Bestela, sakatu **Opc.** denbora berriz neurtzen hasteko edo lehengoarekin jarraitzeko, gorde gabe.

Fase bakoitzeko denborak

Sakatu **Menú**, aukeratu *Aplicaciones, Extras, Cronómetro* eta *Tiempo por fase*. Sakatu **Iniciar** denbora neurtzen hasteko eta **Fase** fase baten denbora neurtzeko. Sakatu **Detener** fasekako denbora geldiarazteko. Neurtutako denborak gordetzeko, sakatu **Guardar** eta sartu izena. Sakatu **Opc.** fasekako denborak gorde edo berriz martxan jartzeko.

Denborak bistaratzea eta ezabatzea

Sakatu **Menú**, aukeratu *Aplicaciones*, *Extras* eta *Cronómetro*.

Kronometroa zeroan jarri ez bada, *Mostrar último*, aukera dezakezu kronometratutako azken denbora ikusteko. Aukeratu *Ver tiempos* eta ikusi nahi duzun denbora.

Gordetako denborak ezabatzeko, aukeratu *Borrar tiempos*. Aukeratu *Borrar todo* eta sakatu **Aceptar**, edo aukeratu *De uno en uno*, joan ezabatu nahi dituzun denboretaraino, sakatu **Borrar** eta, ondoren, sakatu **Aceptar**.

Web-a



Telefonoaren nabigatzailearen bidez, Internet mugikorreko zenbait zerbitzutara sar zaitezke.

Zerbitzu horien erabilgarritasunari, prezioei eta tarifei buruz galdetu sare-operadoreari edo zerbitzu-hornitzaileari.

Telefonoaren nabigatzailearekin, Wireless Mark-Up Language-k (WML) edo extensible HyperText Mark-up Language-k (xHTML) erabiltzen dituzten zerbitzuak ikusi ahal izango dituzu haien orrietan. Itxura pantailaren tamainaren arabera alda daiteke. Kontuan izan agian ez dituzula ikusiko Interneteko orrietako xehetasun guztiak.



Garrantzitsua: Konfiantzako zerbitzuak erabili soilik, programa kaltegarrien kontrako babes eta segurtasun egokiak eskaintzen dizkizutenak.

Zerbitzuetara sartzeko eta horiek erabiltzeko oinarrizko prozedura

1. Gorde itzazu erabili nahi duzun zerbitzura sartzeko beharrezko zerbitzu-doikuntzak. Ikus Telefonoa zerbitzuak erabiltzeko konfiguratzeari, 140. orrialdean.
2. Ezarri konexioa aukeraturiko zerbitzuarekin. Ikus Zerbitzu batekin konexio bat ezartzeko atala, 140. orrialdean.
3. Hasi nabigatzen zerbitzuaren orrietatik. Ikus Zerbitzu baten orrietan nabigatzea, 141. orrialdean.
4. Nabigatzen bukatzen duzunean, eten zerbitzuarekin duzun konexioa. Ikus Zerbitzu bat deskonektatzea, 143. orrialdean.

Telefonoa zerbitzuak erabiltzeko konfiguratzeari



Baliteke telefonoak zerbitzu-doikuntzak gordeta izatea. Erabili nahi duzun zerbitzua eskaintzen duen zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-mezu gisa jaso daitezke doikuntza osagarriak. Zerbitzuaren doikuntzak konfigurazio-mezu gisa jasotzeko, ikus Konfigurazioa doitzeko zerbitzua (19. or.) eta Konfigurazioaren doikuntzak (108. or.).

Informazio gehiago lortu eta doikuntza egokiak zein diren jakiteko, galdetu zerbitzu-hornitzaileari.

Zerbitzu batekin konektatzea

Egiaztatu erabili nahi dituzun zerbitzu-doikuntzak aktibatuta daudela. Doikuntzak aktibatzeko, sakatu *Menú*, hautatu *Web*, *Ajustes* eta *Ajustes de configuración*. Hautatu *Configuración* eta aktibatu nahi duzun konfigurazioa.



Ezarri konexioa zerbitzuarekin. Konektatzeko hainbat era daude:

Ireki zerbitzu-hornitzailearen hasierako orria, adibidez: Sakatu **Menú**, hautatu *Web* eta *Inicio*, edo, pantaila zuri dagoela, luze sakatu   tekla.




- Aukeratu zerbitzuko gogoko bat: Sakatu **Menú**, aukeratu *Web*, *Favoritos* eta, ondoren, aukeratu gogoko bat. Hautaturiko gogokoa aktibatuta dauden zerbitzu-doikuntzekin ez badabil, aktiba ezazu zerbitzu-doikuntzako beste multzo bat eta saia zaitetz berriz.
- Hautatu azkeneko URL helbidea: Sakatu **Menú** eta hautatu *Web* eta *Última dir. Web*.
- Idatzi zerbitzuaren helbidea: Sakatu **Menú**, aukeratu *Web* eta, ondoren, *Ir a dirección*. Sartu zerbitzuaren helbidea eta sakatu **Aceptar**.

Zerbitzu baten orrietan nabigatzea

Zerbitzu batekin konektatu ondoren, haren orrietan nabigatzen has zaitetzke. Telefono-teklen funtzioa zerbitzuen arabera alda daiteke. Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

GPRS aukera datu-garraiatazailer bezala aktibatuta badago, kontuan izan nabigatzen ari zarenean pantailaren goiko ezkerreko aldean  adierazlea agertuko dela. (E)GPRS konexio batean dei bat edo testu-mezu bat jasotzen edo dei bat egiten baduzu, pantailaren goiko ezkerrean  adierazlea agertuko da, (E)GPRS konexioa eten egin dela adierazteko (zain dago). Deia amaitu ondoren, telefonoa (E)GPRS konexioa berrezartzen saiatuko da.

Nabigatzean telefono-teklak erabiltzea

- Erabili joystick-a orrian zehar mugitzeko.
- Nabarmendutako elementu bat hautatzeko, sakatu , edo sakatu **Opcs.** lotura irekitzeko aukera hautatzeko.
- Letrak eta zenbakiak sartzeko, sakatu  **wxyz**  teklak. Karaktere bereziak txertatzeko, sakatu *** +** tekla.

Nabigazioan dauden aukerak

Sakatu **Opcs.** eta eskura dituzun aukerak bistaratuko dira. Zerbitzu-hornitzaileak aukera gehiago eskaini ditzake. Aukeratu *Accesos directos, Inicio, Añadir favorito, Favoritos, Historial, Opciones página, Enlaces descargas, Guardar en carp., Otras opciones, Volver a cargar, Abandonar.*

Cachea memoria-kokaleku bat da, datuak aldi baterako gordetzeko erabiltzen dena. Pasahitza eskatzen duen informazio konfidentzialera sartzen saiatzen bazara edo sartzen bazara, hustu cachea erabiltzen duzun bakoitzean. Sartu zareneko informazioa edo zerbitzuak cache-an jasotzen dira. Cache-a husteko, ikus *Cache memoria 147.* orrialdean.

Zuzeneko deia

Esploratzailea nabigazioan sar zaitezkeen funtzio horiekin bateragarria da. Ahots-dei bat egin dezakezu, ahots-dei bat egiten ari zaren bitartean DTMF tonuak bidal ditzakezu, eta orri batetik izen eta telefono-zenbakiak gorde ditzakezu.

Zerbitzu bat deskonektatzea

Nabigazioa amaitu eta konexioa bertan behera uzteko, sakatu *Opcs.* eta aukeratu *Abandonar*. Pantailan *¿Desea dejar de navegar?* bistaratzen denean, sakatu *Sí*.

Aukerako metodo gisa, sakatu  bitan edo luze sakatu  tekla.

Esploratzailearen itxura–doikuntzak

Nabigazioan, sakatu *Opcs.* eta aukeratu *Otras opciones* eta *Ajustes aspecto*, edo, pantaila zuri dagoela, sakatu *Menú*, aukeratu *Servicios*, *Web*, *Ajustes* eta *Ajustes de aspecto*. Hautatu:

- *Ajuste de líneas de texto*. Hautatu *Activar* eta testuak hurrengo lerroan segituko du. *Desactivar* hautatzen baduzu, testua laburtu egingo da.
- Hautatu *Tamaño de fuente* eta aukeratu tamaina.
- *Mostrar imágenes*. Hautatu *No*, orriko irudiak ez bistartzeko.
- *Avisos*, eta hautatu *Aviso de conexión no segura* eta *Sí*, nabigazioan konexio seguru batetik seguru ez den batera aldatzean, telefonoak ohartarazteko moduan konfiguratzeko. Hautatu *Aviso de elementos no seguros* eta *Sí*, orri seguru batean seguruak ez diren elementuak daudenean, telefonoak ohartarazteko moduan konfiguratzeko. Kontuan izan alerta horiez ez dutela konexio seguru bermatzen. Informazio gehiago lortzeko, ikus Nabigatzailearen segurtasuna 147. orrialdean.

- *Codificación de caracteres*, informazio hori ez duten nabigatzaileko orriak bistaratzeko telefonoak erabilitako karaktere-kopurua hautatzeko edo telefono bateragarri batera web helbide bat bidaltzean UTF8 kodifikazioa erabiliko den hautatzeko.

Cookie-ak

Orri batek telefonoaren nabigatzailearen Cache memorian gordetako zenbait daturi izena emateko balio du "cookie" terminoak. Datuak, esate baterako, erabiltzailearen informazioa edo nabigatzeko lehentasunak izan daitezke. Datu horiek cache memoria ezabatu arte gordeko dira; horri buruz gehiago jakiteko, ikus *Caché memoria* atala 147. orrialdean.

Nabigazioan, sakatu *Opcs.* eta aukeratu *Otras opciones*, *Seguridad* eta *Ajustes de cookies*, edo, pantaila zuri dagoela, sakatu *Menú*, aukeratu *Web*, *Ajustes*, *Ajustes de seguridad* eta *Cookies*. Aukeratu *Permitir* edo *Rechazar*, telefonoak cookie-ak jasotzea ahalbidetzeko edo eragozteko.

Gogokoak

Orrien helbideak telefonoaren memorian gorde daitezke gogokoenen artean.

1. Nabigazioan, sakatu *Opcs.* eta aukeratu *Favoritos*, edo, pantaila zuri dagoela, sakatu *Menú*, aukeratu *Web* eta *Favoritos*.
2. Joan erabili nahi duzun gogokora eta sakatu *Selecc.*, horri dagokion orrira konektatzeko.

Opcs. hautatzen baduzu, aukeratutako gogokoaren izenburua eta helbidea ikusi, editatu, ezabatu, gogoko gisa edo testu-mezu gisa beste telefono batera zuzenean bidali edota gogoko berri bat sor dezakezu.

Litekeena da Nokiarenak ez diren gune batzuetako gogokoak kargatuta izatea. Nokiak ez ditu gune horiek bermatzen eta babesten. Horietara sartzen bazara, Interneteko beste edozein lekutan hartuko zenituzkeen ardura berak hartu beharko dituzu segurtasunari eta edukiari dagokienez.

Gogokoak hartzea

Gogoko bat jasotzen duzunean (gogoko gisa bidalita), pantailan *1 favorito recibido* mezua agertuko da. Pulse **Mostrar** para verel favorito. Gogokoa gordetzeko, sakatu **Guardar**, edo sakatu **Opcs.** eta hautatu *Ver* xehetasunak ikusteko, edota, *Borrar* baztertzeko.

Deskargatzea

Telefonoan tonu, grafiko, joko, bideo, gai edo aplikazio gehiago deskargatzeko telefonoan (sare-zerbitzua), sakatu **Menú**, eta aukeratu *Web* eta *Enlaces descargas*. Hautatu *Descargas tonos*, *Descargas gráfs.*, *Descargas juegos*, *Descargas vídeo*, *Descarga temas* edo *Descargas aplics.*



Garrantzitsua: birusen eta bestelako programa kaltegarrien kontrako babes egokia eskaintzen duten iturrietatik datozen aplikazioak soilik instalatu.

Kontsultatu zerbitzuen erabilgarritasuna, prezioak eta tarifak, zure sare-operadorearekin edo zerbitzuen hornitzailearekin.

Zerbitzuko sarrerako postontzia

Telefonoak zure zerbitzu-hornitzaileak igorritako zerbitzu-mezuak (hedapen-mezuak) jaso ditzake (sare-zerbitzua). Zerbitzu-mezuak, esate baterako, berri-tituluen jakinarazpenak dira, eta testu-mezu bat edo zerbitzu baten helbidea izan ditzakete.

Pantaila zuri dagoela *Buz. entrada serv.* aukeran sartzeko, sakatu *Mostrar* zerbitzu-mezu bat jaso duzunean. Salir sakatzen baduzu, mezua *Buz. entrada serv.* aukerara pasatzen da. *Buz. entrada serv.* aukerara geroago sartzeko, sakatu *Menú*, eta hautatu *Web* eta *Buz. entrada serv.*

Nabigatzen ari zarela *Buz. entrada serv.* aukeran sartzeko, sakatu *Opcs.* eta aukeratu *Otras opciones* eta *Buz. entrada serv.* Nahi duzun mezura joan, sakatu *Recuper.* nabigatzailea aktibatzeko eta markatutakoak deskargatzeko, edo sakatu *Opcs.* eta hautatu *Detalles* zerbitzuaren jakinarazpenari buruzko informazio zehatza bistaratzeko; bestela, hautatu *Borrar* ezabatzeko.

Zerbitzuko sarrerako postontziaren doikuntzak

Sakatu *Menú*, eta aukeratu *Web*, *Ajustes* eta *Ajustes de buzón entrada de servic.* Aukeratu *Mensajes de servicio* eta *Activar* (edo *Desactivar*) zerbitzu-mezuak jasotzeko (edo ez jasotzeko) moduan konfiguratzeko telefonoa.

Hautatu *Filtro de mensajes* eta *Activar*, telefonoa bereziki konfiguratzeko zerbitzu-hornitzaileak baimendutakoek egindako edukiak dituzten mezuak bakarrik jasotzeko moduan. Baimendutako egileen edukien zerrenda ikusteko, hautatu *Canales seguros.*

Aukeratu *Conexión automática.* Telefonoa zerbitzu-mezuak jasotzeko moduan konfiguratu eta *Activar* hautatu baduzu, telefonoak automatikoki aktibatuko du nabigatzailea, pantaila zuri dagoela, zerbitzu-mezu bat jaso duenean. *Desactivar* hautatzen baduzu eta zerbitzu-mezu bat jaso baduzu, telefonoan *Recuper.* aukeratu duzunean bakarrik aktibatuko da telefonoa.

Cache memoria

Sartu zareneko informazioa edo zerbitzuak telefonoaren cache memorian jasotzen dira. Cachea tarteko memoria da, datuak aldi baterako gordetzeko erabiltzen dena. Nabigatu bitartean cache memoria husteko, sakatu *Opc.* eta hautatu *Otras opciones* eta *Borrar la caché*, edota, pantaila zuri dagoela, sakatu *Menú* eta aukeratu *Web* eta *Borrar la caché*.

Nabigatzailearen segurtasuna

Segurtasuneko funtzioak beharrezkoak izan daitezke zerbitzu batzuetarako, adibidez, bankuko zerbitzuetarako edo telefono bidezko erosketa-zerbitzuetarako. Konexio horietarako segurtasun-ziurtagiriak behar dira eta, baliteke SIM txartelean egon daitekeen segurtasun-modulu bat ere behar izatea. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Segurtasun-modulua

Segurtasun-moduluak ziurtagiriak eta pasahitz publiko eta pribatuak izan ditzake. Segurtasun-moduluak segurtasun-zerbitzuak hobetzen ditu, nabigatzaileko konexioa behar duten aplikazioetarako, eta sinadura digitala erabiltzeko aukera ematen du. Zerbitzu-hornitzailea arduratuko da ziurtagiriak segurtasun-moduluan gordetzeaz.

Sakatu *Menú* , eta aukeratu *Web*, *Ajustes*, *Ajustes de seguridad* eta *Ajustes de módulo de seguridad*. Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- *Detalles módulo de seguridad*, segurtasun-moduluaren izena, egoera, fabrikatzailea eta serie-zenbakia ikusteko.


- *Petición de PIN del módulo*, telefonoa segurtasun-moduluko zerbitzuak erabiltzean modulua PINa eskatzeko moduan konfiguratzeko. Sartu kodea eta hautatu *Activar*. Modulua PINa eskatzeko aukera desaktibatzeko, hautatu *Desactivar*.
- *Cambiar PIN del módulo*, modulua PINa aldatzeko, segurtasun-moduluak horretarako aukera ematen badu. Idatzi modulua uneko PIN kodea eta, ondoren, idatzi kode berria bitan.
- *Cambiar PIN de firma*. Aukeratu aldatu nahi duzun sinaduraren PINa.
Idatzi oraingo PIN kodea eta, ondoren, kode berria bitan.

Ikus, halaber, *Sarbide-kodeak* 16. orrialdean.

Ziurtagiriak

Hiru ziurtagiri mota daude: zerbitzariaren ziurtagiriak, autoritate-ziurtagiriak eta erabiltzaile-ziurtagiriak.

- Telefonoak zerbitzari-ziurtagiri bat erabiltzen du, edukien zerbitzariarekin konexio seguru hobea izateko. Telefonoak konexioa egin aurretik jasotzen du zerbitzu-hornitzailearen ziurtagiria eta telefonoan gordetako baimen-ziurtagirien bidez horren baliagarritasuna egiaztatzen da. Zerbitzariaren ziurtagiriak ez dira gordetzen.

 segurtasun-adierazlea konexio batean bistaratzen da, telefonoaren eta edukien zerbitzariaren arteko datu-transmisioa kodetuta badago.

Segurtasun-ikonoak ez du esan nahi pasabidearen eta eduki-zerbitzariaren (eskatutako baliabidea gordetzen duen lekua) arteko datuen transmisioa segurua denik. Zerbitzu-hornitzaileak pasabidearen eta edukien zerbitzariaren arteko datu-transmisioa ziurtatzen du.

- Zerbitzu batzuek –adibidez, banku-zerbitzuek– baimen-ziurtagiriak erabiltzen dituzte, besteak beste, ziurtagiri batzuk egiaztatzeko. Zerbitzu-hornitzaileak baimen-ziurtagiriak segurtasun-moduluan gorde ditzake. Dena den, saretik ere jaits daitezke, baldin eta zerbitzuak baimen-ziurtagiriak erabiltzea onartzen badu.
- Erabiltzaileek Autoritate Ziurtagiri-emaile batetik jasotzen dituzte erabiltzaile-ziurtagiriak. Erabiltzaile-ziurtagiriak derrigorrezkoak dira, adibidez, sinadura digitala egiteko, eta erabiltzaileari berariazko pasahitz pribatua esleitzen diote segurtasun-moduluan.




Garrantzitsua: ziurtagiriak erabiltzeak murriztu egiten ditu urruneko konexioei eta software-instalazioei lotutako arriskuak, baina behar bezala erabili behar dira segurtasun gehigarri hori benetan aprobetxatzeko. Ziurtagirik ez dute berez babesik eskaintzen; ziurtagirien administratzaileak ziurtagiri zuzenak, benetakoak edo fidagarriak izan behar ditu, segurtasun gehiago izateko. Ziurtagirik iraupen mugatua dute. Certificado caducado edo Certificado no válido testua agertzen bada baliozkoa izan behar lukeen arren, egiaztatu telefonoaren uneko ordua eta data zuzenak direla.

Ziurtagiriaren edozein balio aldatu aurretik, ziurtatu haren jabea konfiantza osokoa dela eta benetan zerrendan agertzen den jabearena dela.

Sinadura digitala

Telefonoarekin sinadura digitala sor daiteke, betiere zure SIM txartelak segurtasun-modulu bat badu. Sinadurak segurtasun-moduluko pasahitz pribatu baten bidez eta sinatzeko erabilitako ziurtagiriaren bidez identifikatzen du erabiltzailea. Sinadura digitalak faktura, kontratu edo beste dokumentu batean egiten den sinaduraren balio berbera du.

Sinadura digitala erabiltzeko, aukeratu lotura bat orri batean (adibidez, erosi nahi duzun liburuaren izenburua eta prezioa. Sinatu behar den testua agertuko da (seguru asko, zenbatekoa, data, etab. ere bai).

Egiaztatu goiburukoan *Leer* testua jartzen duela eta sinadura digitalaren ikonoa  agertzen dela.



Oharra: Sinadura digitalaren ikonoa bistaratzen ez bada, segurtasun-baldintzak ez direla betetzen adierazten du; beraz, ez zenuke datu pertsonalik sartu behar (adibidez, zure sinaduraren PINa).

Testua sinatzeko, irakurri lehenengo eta, ondoren, aukeratu **Firmar**.

Baliteke testuak hainbat pantaila betetzea. Sinatu baino lehen ziurtatu orri guztietako testua irakurri duzula. Hautatu erabili nahi duzun erabiltzaile-ziurtagiria. Sartu sinaduraren PINa (Ikus Informazio orokorra 14. orrialdean) eta sakatu **Aceptar**. Sinadura digitalaren ikonoa desagertu egingo da; agian, zerbitzuak erosketa egin duzula berretsiko dizu.

SIM zerbitzuak



Telefonoan erabilgarri dauden funtzioez gain, zure SIM txartelak, menu honetako –SIM txartelak onartzen badu bakarrik azalduko da– zerbitzuez gain, beste zerbitzu osagarri batzuk ere eskain ditzake. Menu honen izena eta edukia SIM txartelaren araberakoak dira.

SIM zerbitzuen erabilgarritasunari, tarifei eta informazioari buruzko xehetasun gehiago lortzeko, jarri harremanetan SIM txartelaren hornitzailearekin, sare-operadorearekin, zerbitzu-hornitzailearekin edo bestelako hornitzaile batekin.

Operadorearen arabera, SIM zerbitzuak erabiltzean telefonoaren eta sarearen artean igorritako baieztapen-mezuak erakusteko moduan konfiguratu daitezke telefonoa. Horretarako, aukeratu *Sí*, *Confirmar acciones de servicio de SIM* menuko *Ajustes del teléfono* aukeran.

Hartu kontuan zerbitzu hauetara sartzeak mezu bat bidaltzea edo telefono-dei bat karguarekin egitea ekar dezakeela.

6. PCrako konektagarritasuna

Telefonoa infragorri bidez, Bluetooth bidez edo datu-kable baten bidez PC bateragarri batera konektatuta dagoenean, mezu elektronikoak bidali eta jaso eta Internetera sar daiteke. PC konekta daitezkeen aplikazio ugari eta datu-komunikazio ugari erabil ditzake telefonoak. PC Suite-rekin, adibidez, aurkibidea, agenda eta oharrak sinkroniza ditzakezu, telefonoaren eta PC eramangarriaren edo Interneteko urrutiko zerbitzu baten artean (sare-zerbitzua).

Informazio gehiago izateko eta deskargatzeko artxiboak lortzeko (adibidez, PC Suite), begiratu Nokiaren web gunean (www.nokia.com).

■ PC Suite

PC Suite-k aplikazio hauek ditu (ordena alfabetikoan):

- **HTML Help**, aplikazioa erabiltzen uzteko.
- **Nokia 6021**, mugikorraren datu-modemaren kontrolatzaileek telefonoa modem gisa erabiltzeko aukera ematen dute.
- **Nokia Application Installer**, telefonoan, PC bateragarri batetik, Java J2ME aplikazioak instalatzeko, adibidez jokoak eta hiztegiak.
- **Nokia Connection Manager**, PCaren eta telefonoaren arteko konexio-mota aukeratzeko.
- **Nokia Contacts Editor**, telefonoan aurkibidea editatzeko.

- **Nokia Content Copier**, datu pertsonalak berrezartzeko eta telefonoaren eta PC bateragarriaren artean segurtasun-kopiak egiteko. Datu pertsonal horiek Nokiaren beste telefono bateragarri batera ere transferi ditzakezu.
- **Nokia Image Converter**, multimedia-mezueta edo horma-irudietan erabil daitezkeen irudiak sortzeko (onartutako formatuan) eta irudi horiek telefonora transferitzeko.
- **Nokia Modem Options**, HSCSD eta GPRS konexioetarako doikuntzak ditu.
- **Nokia Multimedia Player**, PCan soinuak, irudiak, bideoak eta multimedia-mezuak erreproduzitzeko. Telefonoan jasotako edo mezu elektronik bidez jasotako multimedia-elementuak ikusteko aukera ematen du Nokia Multimedia Player erreproduzitzailerak.
- **Nokia PC Sync**, aurkibidea, agenda eta lanen zerrenda-oharrak telefonoaren eta PC bateragarriaren artean sinkronizatzeko.
- **Nokia Phone Browser**, telefonoko Galeria karpeta edukia PC bateragarri batean ikusteko. Irudi- eta audio-fitxategietan nabiga dezakezu, telefonoaren memorian alda ditzakezu eta telefonotik PCra transferitu.
- **Nokia Phone Editor**, testu-mezuak bidaltzeko eta telefonoko kontaktuak editatzeko.
- **Nokia Settings Manager**, nabigatzaileko gogokoak editatzeko eta bidaltzeko, edo telefonoan konexio-multzoak eguneratzeko.

- Nokia Sound Converter, formatu onartua duten dei-seinale polifonikoak telefonoarekin bateragarria izateko moduan optimizatzeko eta horiek telefonora transferitzeko.
- Nokia Text Message Editor PC batetik zuzenean testu-mezuak irakurri, idatzi eta bidaltzeko.

Copyright-en babesak direla eta, agian, irudi eta dei-tonu batzuk eta beste eduki batzuk ezingo dituzu kopiatu, aldatu, transferitu edo berriro bidali.

(E)GPRS, HSCSD eta CSD

Telefonoarekin, (E)GPRS (Enhanced GPRS), GPRS (General Packet Radio Service), HSCSD (High Speed Circuit Switched Data) eta CSD (Circuit Switched Data, *Datos GSM*) datuen zerbitzuak erabil daitezke.

Datu-zerbitzuen erabilgarritasunari buruzko informazioa lortu nahi baduzu edo haietara harpidetu nahi baduzu, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

Kontuan eduki HSCSD zerbitzuak erabiliz gero, telefonoak ohiko ahots- edo datu-deiak bidaltzeko baino memoria gehiago behar duela. Baliteke telefonoa kargagailura konektatu behar izatea datu-transferentziaren bat egin behar duzunean.

Ikus (E)GPRS modemaren doikuntzak 106. orrialdean.

■ Datuak komunikatzeko aplikazioak erabiltzea

Datu-komunikazioen aplikazioei buruzko informazioa eskuratzeko, kontsultatu dagokion aplikazioarekin emandako dokumentazioa.

Ordenagailua konektatua dagoen bitartean telefono-deiei ez erantzutea edo deirik ez egitea gomendatzen dugu, eragiketa eten baitaiteke. Datu-deietan errendimendu hobea lortzeko, jarri telefonoa gainazal egonkor batean, teklatura beherantz duela. Datu-dei batek irauten duen bitartean, ez mugitu telefonoa eta ez eduki eskuetan.

7. Bateriari buruzko informazioa

■ Kargatzea eta deskargatzea

Telefonoak elikadura jasutzen du, berriz kargatzen den bateria baten bidez. Bateria baten errendimendu egokia bi edo hiru aldiz erabat kargatu eta deskargatu ondoren soilik lortzen da. Bateria sarritan karga eta deskarga daiteke, baina denborarekin gastatu egingo da. Hitz egiteko denbora eta deiak jasotzeko/egiteko denbora normalean baino laburragoak badira, erosi bateria berria. Erabili Nokiak onartutako bateriak soilik, eta kargatu bateriak Nokiak gailu honentzat onartutako kargagailuak erabiliz.

Deskonektatu kargagailua entxufetik eta telefonotik erabili behar ez baduzu. Ez utzi bateria kargagailuari konektatuta. Gehiegi kargatzeak laburtu egin dezake bateriaren iraupena. Guztiz kargatuta dagoen bateria erabiltzen ez bada, bateria deskargatu egiten da denbora jakin baten ondoren. Muturreko tenperaturek bateriaren karga-ahalmenari eragin diezaioke.

Erabili bateria diseinatu zuten helbururako bakarrik. Ez erabili inoiz kargagailua edo bateria hondatuta badaude. Saihestu bateriaren zirkuitulaburrak. Zirkuitulaburra gerta liteke objektu metaliko batek –txanpon bat, klip bat edo boligrafo bat– zuzenean konektatzen baditu bateriaren terminal positiboa (+) eta negatiboa (-). (Bateriaren banda metalikoak dira.) Hori gerta liteke, adibidez, patrikan edo poltsan beste bateria bat baduzu. Terminalen zirkuitulaburrak bateria edo horri konektaturiko objektua honda ditzake.

Bateria leku hotzetan edo beroetan uzten baduzu, esate baterako, udan edo neguan itxita dagoen ibilgailuan, bateriaren ahalmena eta iraupena murriztu egingo dira. Bateriak 15 °C eta 25 °C bitartean egon behar du. Baliteke bateria hotzegi edo beroegi badago telefonoak denboraldi batean ongi ez funtzionatzea, baita erabat kargatuta badago ere. Izozte-puntuaren azpitik dauden tenperaturek bereziki mugatzen dute bateriaren errendimendua.


Ez bota sutara bateriarik! Bete tokiko araudia erabilitako bateriak ezabatzeko garaian. Mesedez, birziklatu ahal den guztietan. Ez bota bateriak etxeko zakarrontzira.

■ Nokia bateriak autentifikatzeko arauak


Zure segurtasunerako, erabili beti jatorrizko Nokia bateriak. Nokia bateria jatorrizkoa izan dadin, eros ezazu Nokiaren saltoki baimenduetan; bilatu Nokia Original Enhancements (Nokiaren jatorrizko ekipoak) logotipoa salgaietan eta begiratu etiketari, urrats hauei jarraiki:

Lau urratsak behar bezala egin arren, bateria jatorrizkoa den berme osorik ez dugu. Eskuratutako bateria benetakoa eta jatorrizkoa ez dela susmatzen baduzu, ez duzu erabili behar. Hurbilen duzun hornitzailearengana edo saltokira eramatea eta laguntza eskatzea gomendatzen dizugu. Nokiaren hornitzaile edo saltoki baimenduak egiaztatuko du bateria jatorrizkoa den. Ezin bada frogatu bateria jatorrizkoa dela, eraman berriro eskuratu duzun tokira.

Kautotze-holograma



1. Ikus hologramaren etiketa: angelu batetik, elkartzen diren eskuen irudia ikusiko da (Nokiaren ikurra), eta, bestetik, Nokia Original Enhancements-en logotipoa (Nokiaren jatorrizko ekipamendua).



2. Okertu holograma logotipoaren ezkerrera, eskuinera, gora eta behera, eta 1, 2, 3 eta 4 puntuak ikusi behar dira alboetan.



3. Harraskatu etiketaren alde batean, eta 20 digituko kode bat azalduko da (adibidez, 12345678919876543210). Bira eman bateriari zenbakiak gora begira gera daitezzen. 20 digituko kodea irakurtzeko, ikus, lehenbizi, goiko lerroko zenbakiak eta, gero, behekoak.



4. 20 digituko kodearen baliotasuna egiaztatzeko, jarraitu www.nokia.com/batterycheck Nokiaren web orriko jarraibideei.

Testu-mezu bat sortzeko, idatzi 20 digituko kodea (adibidez, 12345678919876543210) eta bidali +44 7786 200276 zenbakira.

Operadorearen estatuko eta nazioarteko tarifak aplikatuko dira. Kodea kauto daitekeen adieraziko dizun mezua jasoko duzu.

Zer gertatzen da bateria benetakoa ez bada?

Hologramaren etiketarekin ezin baduzu egiaztatu Nokia bateria benetakoa den, ez erabili, eta eramán hurbilen duzun Nokiaren hornitzaile baimenduarengana edo saltokira, laguntza eskatzeko. Arriskutsua izan daiteke fabrikatzaileak onartzen ez dituen bateriak erabiltzea, gailuaren errendimendua hondatu eta gailua eta ekipamendua honda dezakete. Halaber, gailuaren hainbat berme baliogabetu ditzake.

Nokiaren jatorrizko bateriei buruzko informazio gehiago behar baduzu, ikus www.nokia.com/battery.

ZAINKETA ETA MANTENTZE-LANA

Telefono hau diseinu eta fabrikazio bikaineko produktua da eta arduraz zaindu behar da. Iradokizun hauek lagunduko dizute zure bermearen estaldura babesten.

- Ez busti telefonoa. Euriak, hezetasunak eta likidoek zirkuitu elektronikoak oxida ditzaketen mineralak dituzte. Telefonoa bustitzen bada, kendu bateria eta itxaron telefonoa erabat lehortu arte bateria berria jartzeko.
- Ez erabili eta ez gorde telefonoa leku zikinetan edo hautsez betetakoetan. Pieza mugikorrek eta osagai elektronikoak hondatu egin litezke.
- Ez gorde telefonoa leku beroetan. Temperatura altuek gailu elektronikoien iraupena gutxitu dezakete, bateria kalte dezakete eta zenbait plastiko deformatu edo desegin egin ditzakete.
- Ez gorde telefonoa leku hotzetan. Telefonoak ohiko tenperatura berreskuratzen duenean, hezetasuna sor daiteke barrualdean, eta horrek zirkuitu elektronikoien plakak kalte ditzake.
- Ireki telefonoa beti gidaliburu honetako jarraibideen arabera.
- Ez utzi lurrera erortzen, ez kolperik eman eta ez mugitu zakarki telefonoa. Zakar erabiltzen baduzu, barne-zirkuituen plakak eta pieza mekaniko ahulenak puskatu egin litezke.
- Ez erabili produktu kimiko kaltegarririk, disolbagarririk edo garbigarri sendorik telefonoa garbitzeko.
- Ez pintatu telefonoa. Pinturak pieza mugikorrek oztopa ditzake eta behar bezala funtzionatzea galaraz dezake.

- Erabili telefonoak berez daukan antena edo onetsitako ordezeko antena soilik. Baimenik gabeko antenek, aldatetek eta erantsitako elementuek kaltea eragin diezaiokete telefonoari eta irrati-aparatuei buruzko araudia urra dezakete.
- Ez erabili kargagailurik aire zabalean.
- Gorde nahi dituzun datuen (kontaktuak eta agendako oharrak) segurtasun-kopia egin beti, telefonoa zerbitzu teknikora bidali baino lehen.

Gomendio horiek guztiak berdin-berdin aplikatzen zaizkie telefonoari, bateriari, kargagailuari eta gainerako osagarriei. Gailuren bat behar bezala ez badabil, eraman hurbilen duzun baimendutako banatzaileari.

SEGURTASUNARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO

Telefonoak eta haren ekipamenduak pieza txikiak izan ditzakete. Ez utzi hurren eskuera.

■ Errepideko segurtasuna

Ez erabili telefono mugikorra gidatzen ari zarenean. Jarri beti telefonoa bere euskarrian, ez utzi kopilotuaren eserlekuan edo talka eginda edo bat-batean geldituta aska daitekeen lekuan.

Gogoratu: Errepidean kontuz ibiltzea da funtsezkoena!

■ Ingurune operatiboa

Errespetatu ezazu zu zauden tokian indarrean dagoen araudi berezia eta itzali telefonoa erabiltzea debekatuta dagoenean, interferentziak eragin ditzakeenean edo arriskutsua izan daitekeenean. Erabili telefonoa funtzionamenduko posizio normaletan soilik. Produktu honek irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa arautzen duten arauak betetzen ditu, bai belarriaren ondoan, bai gorputzeko 2,2 cm gutxienez edukitzen denean ere. Produktua zorro babesle batekin, gerriko pintza batekin edo euskarri batekin gorputzetik gertu erabiltzen baduzu, komeni da zuk metalik gainean ez izatea eta produktua gorputzetik lehen aipatutako distantziara izan behar duzu. Telefonoaren zenbait osagarri magnetikoak dira.

Telefonoak metalezko materialak erakar ditzake, eta audiofonoa duten pertsonak ez lukete telefonoa belarrira hurbildu behar audiofonoa jarrita badute. Jarri beti telefonoa bere euskarrian, audiofonoak metalezko piezak erakar baititzake. Ez jarri kreditu-txartelik, ez bitarteko magnetikoak ere telefonotik gertu, horietan gordetako informazioa ezaba baitaiteke.

Mezuak edo datu-fitxategiak transmititzeko, gailu honek kalitateko sare-konexioa behar du. Kasu batzuetan, mezuen edo datu-fitxategien transmisioa atzeratu egin liteke konexio egokia erabilgarri egon arte. Ziurtatu transmisioa amaitu bitartean distantziei buruzko jarraibideak betetzen dituzula.

■ Aparatu medikoak

Irrati-transmisioko ekipoei, telefono mugikorrak barne, interferentziak eragin ditzakete behar bezala babestuta ez dauden tresna medikoen funtzionamenduan. Kontsultatu mediku batekin edo aparatu medikoaren fabrikatzailearekin, IM kanpo-seinaleen aurka behar bezala babestuta dauden jakiteko edo edozein zalantza argitzeko. Itzali telefonoa hala adierazten dizuten erietxeetako leku berezietan. Litekeena da ospitale eta erietxeetan IM kanpo-seinaleekiko sentikorrak diren ekipoak erabiltzea.

Taupada-markagailua

Taupada-markagailuen fabrikatzaileek telefono mugikorraren eta taupada-markagailuaren artean gutxienez 15,3 cm-ko distantzia izateko gomendatzen dute, taupada-markagailuarekin interferentziak sortzea galarazteko. Gomendio horiek ikerketa independenteen eta haririk gabeko gailuen ikerketa teknologikoen ondorioak dira. Taupada-markagailua duten pertsonak:

- Telefonoa aktibatuta dagoenean, taupada-markagailutik gutxienez 15,3 cm-ra eduki behar dute.
- Telefonoa ez dute eraman behar bularraren parean dagoen sakelara.

- Taupada-markagailuaren aurkako aldeko belarrian erabili behar dute telefonoa, interferentzia-arriskua ahal bezainbeste murrizteko.

Interferentziaren bat gertatzen ari den susmorik baduzu, itzali berehala telefonoa.

Entzuteko aparatuek

Zenbait telefono mugikor digitalek interferentziak eragin ditzakete audiofono jakin batzuekin. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

■ Ibilgailuak

Behar bezala instalatuta edo babestuta ez dauden motordun ibilgailuetako sistema elektronikoei eragin diezaiekete IM seinaleek (esate baterako, injekziozko sistema elektronikoak, ibilgailuen balaztak blokeatzea eragozten duen balazta-sistema elektronikoak –ABS–, abiadura kontrolatzeko sistema elektronikoak eta airbag-sistemak). Informazio gehiago nahi izanez gero, egiaztatu zure autoaren edo zuk erantsitako ekipamenduaren alderdi horiek fabrikatzailearekin edo haren agente komertzialarekin.

Langile trebatuek soilik konpon dezakete telefonoa edo instala dezakete ibilgailu batean. Behar bezala instalatu edo konpondu ez bada, arriskutsua gerta daiteke eta telefonoari aplikatzen zaion bermea baliogabetu. Egiaztatu maiz zure ibilgailuko telefono mugikorraren ekipo osoa behar bezala muntatuta dagoela eta behar bezala dabilela. Ez biltegitatu eta garraiatu likido sukoiarik, gasik eta material lehegarriarik telefonoa eta haren piezak edo ekipamendua dauden leku berean. Airbaga duen ibilgailua baduzu, gogoratu indar handiz puzten dela. Ez jarri objekturik –ez instalaturiko ekipoa, eta ez telefono mugikorraren pieza eramangarriak– airbagaren gainean edo hori zabalduko den gunearen gainean. Telefonía mugikorreko ekipoa ibilgailuaren barruan behar bezala instalatuta ez badago eta airbaga zabaldu egiten bada, zauri larriak eragin ditzake.

■ Hegazkinak

Baliteke debekatuta egotea hegazkinetan telefonoa erabiltzea. Itzali telefonoa hegazkinera igo baino lehen. Telefono mugikorrek hegazkinean erabiltzea arriskutsua izan daiteke hegazkinaren beraren funtzionamenduarentzat, eta telefono mugikorraren sarearen konexioa eten egin dezake; gainera, legez kontrakoa da.

■ Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

Deskonektatu telefonoa leherketak gerta daitezkeen eremuetan, eta bete seinale eta argibide guztiak. Lehertzeko arriskua dagoen tokietan autoaren motorra itzaltzea gomendatzen dute normalean. Eremu horietan ezta edo suteak izan litezke txinparten ondorioz, eta horiek kalte pertsonalak eragin ditzakete, baita heriotza ere. Itzali telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan (adibidez, zerbitzuguneetako hornigailuen ondoan). Errespetatu erregai-deposituetan, biltegitratzeko eta banatzeko eremuetan, instalazio kimikoetan eta leherketa-eremuetan irratiekipoak erabiltzeko dauden murrizketak. Leherketak gerta daitezkeen gunek argi eta garbi adierazita daude sarritan, baina ez beti. Horietako batzuk hauek dira: itsasontzietako kubiartak; produktu kimikoak biltegitratu eta garraiatzeko instalazioak; petrolio-gas likidotua (adibidez, propanoa edo butanoa) erabiltzen duten ibilgailuak; eta airean partikula edo elementu kimikoak (adibidez, pikorra, hautsa edo metalezko partikulak) dauden eremuak.



■ Larrialdi-deiak



Garrantzitsua:

Telefono mugikorrek, hau barne, irradi-seinaleekin, haririk gabeko eta lurreko sareekin eta erabiltzaileak programatutako funtzioekin ibiltzen dira. Horregatik, ezin daiteke bermatu konexioek egoera guztietan funtzionatuko dutenik. Ez egon inoiz gailu mugikor baten baitan komunikazio garrantzitsuetarako (larrialdi medikoetarako adibidez).

Larrialdi-dei bat egiteko:

1. Telefonoa piztuta ez badago, piztu. Egiaztatu seinale-intentsitatea egokia dela. Zenbait sarek telefonoan baliozko SIM txartel bat jartzeko eska dezakete.
2. Sakatu  behar adina aldiz pantaila ezabatu eta telefonoa deitzeko prest jarri arte.
3. Markatu tokiko larrialdi-zenbakia. Larrialdi-zenbakiak aldatu egin daitezke herri batetik bestera.
4. Sakatu  tekla.

Zenbait funtzio aktibatuta badaude, agian desaktibatu egin beharko dituzu larrialdi-dei bat egin ahal izateko. Telefonoa lineatik kanpoko moduan edo sarerako konexiorik gabeko moduan badago, modua aldatu behar duzu telefono-funtzioa aktibatu eta larrialdi-deia egin ahal izateko. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gidaliburu hau edo galdetu zure zerbitzu-hornitzaileari.

Larrialdi-dei bat egitean, eman beharrezkoa den informazio guztia ahalik eta zehatzen. Litekeena da zure telefono mugikorra izatea istripuaren lekuko komunikazio-bitarteko bakarra: Ez eten deia horretarako baimena ematen dizuten arte.

■ Absortzio Espezifikoaren Tasaren (SAR) ziurtagiria.

GAILU HONEK BETETZEN DITU IRRATI-UHINEKIKO ESPOSIZIOARI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAK.

Zure telefono mugikorra irrati-transmisorea eta irrati-hargailua da. Nazioarteko arauak (ICNIRP) gomendaturiko irrati-maiztasunaren energiarako (IM) esposizio-mugak ez gainditzeko diseinatuta eta fabrikatuta dago. Muga horiek zuzentarau zehatz batzuen zati dira, eta herritarrentzat baimenduriko IMren energia-mailak ezartzen dituzte. Erakunde zientifiko independenteek garatu dituzte zuzentarau horiek, azterlan zientifikoan aldizkako ebaluazio zehatzaren bidez. Arau horiek segurtasun-tarte handia dute, pertsona guztien segurtasuna bermatzeko, pertsonen duten adina edo osasun-egoera kontuan hartu gabe.

Telefono mugikorretarako esposizio estandarreko indizea Absortzio Espezifikoaren Tasa edo SAR (Specific Absortion Rate) izeneko unitatearekin neurtzen da. Arauetan zehaztutako muga-tasa 2,0 W/kg¹ da. SAR probak funtzionamendu estandarreko posizioetan egiten dira, eta telefonoak berriz potentzia-maila ziurtatu handienera transmititzen du probaturiko frekuentzia-banda guztietan. SAR ziurtatutako potentzia-maila handienera zehazten den arren, telefonoaren funtzionamenduko tasa erreala gehienezko balioaren azpitik egon ohi da nabarmen. Telefonoa hainbat potentzia-mailatan funtzionatzeko eta sarera konektatzeko behar den potentzia bakarrik erabiltzeko diseinatuta dagoelako gertatzen da hori. Normalean, telefonia mugikorreko antena batetik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta txikiagoa da energia-emisioa.

Gailu honentzat ezarritako SAR balio altuena, telefonoa belarrian jarrita erabiltzen denerako, 0,72 W/kg da. Produktu honek irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa arautzen duten arauak betetzen ditu, bai belarriaren ondoan, bai gorputzeko 2,2 cm gutxienez edukitzen denean ere. Produktua zorro babesle batekin, gerriko pintza batekin edo euskarri batekin gorputzetik gertu erabiltzen baduzu, komeni da zuk metalik gainean ez izatea eta produktua gorputzetik 2,2 cm-ra gutxienez izan behar duzu. Mezuak edo datu-fitxategiak transmititzeko, gailu honek kalitateko sare-konexioa behar du. Kasu batzuetan, mezuen edo datu-fitxategien transmisioa atzeratu egin liteke konexio egokia erabilgarri egon arte. Ziurtatu transmisioa amaitu bitartean distantzietan buruzko jarraibideak betetzen dituzula.

1. Jendeak erabiltzen dituen telefono mugikorretarako SAR muga 2,0 Watt/kilogramo (W/kg) da batez beste, giza ehunaren hamar gramoko. Jarraibideek segurtasun-tarte nabarmena dute, jendearentzat babes gehigarria ezartzen duena eta neurrien edozein aldaketa kontuan hartzen duena. Absortzio espezifikoaren tasaren balioak (SAR) estatu bakoitzeko informazio-eskakizunen eta sarearen bandaren araberakoak dira. Beste eskualdeetako absortzio espezifikoaren tasaren inguruko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu produktuari buruzko informazioa www.nokia.com helbidean.

 **Euskaltel**
mòvil

mòvil

